

KUDEAKETA TXOSTENA

2014-2015 ikasturtea



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAINASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

AURKIBIDEA

1. Programa. Ikasleak, gure izatearen arrazoia.....	5
2. Programa. Administrazio eta zerbitzuetako langileak	11
3. Programa. Irakasleak eta ikertzaileak	14
4. Programa. Graduoko eskaintza irekia eta berritzailea.....	16
5. Programa. Nazioartean erakargarria izango den graduondoko eskaintza, gure inguru ekonomiko eta sozialera egokitua.....	20
6. Programa. Unibertsitate ikertzailea.....	25
7. Programa. Jakintza transferitzea gizartearen onurarako.....	33
8. Programa. Euskararen eta euskal kulturaren unibertsitatea	38
9. Programa. Mundura irekitako unibertsitatea	43
10. Programa. Unibertsitate konprometitua eta arduratsua.....	48
11. Programa. Unibertsitate adeitsua eta hurbilekoa	53
12. Programa. Campusetako bizitza	56

1. PROGRAMA. IKASLEAK, GURE IZATEAREN ARRAZOIA

1.1. EKINTZAILETZA ETA LANERATZEA SUSTATZEA

1.1.1. Hiru campusetako Enplegu Guneek eskainitako zerbitzuak indartzea eta ikasleengana hurbiltzea.

- Zerbitzua eman zaie 1.698 tituludunei eta ikasleei (%55,5 emakumeak eta %44,5 gizonezkoak), lau Enplegu Guneetan. Horien artetik, 660k banakako orientazioa jaso dute, eta gainerakoek, taldekoa.
- Hiru campusetako unibertsitate ikastegi guztien bisiten txanda amaitu da. Bisita horietan, Enplegu Guneak ezagutzera eman, eta informazio hitzaldiak eman dira.
- Lehen enplegua lortzeari lotutako ikastaroak eta jarduerak antolatu ditugu, eta unibertsitateko tituludunen enplegarritasunari buruzko foroetan parte hartu dugu. *Prestik Azoka (Bilbo)*; *BIME RECRUITING (Industria Sortzaileen Enplegu Foroa, Bilbo)*; *Living and Working in Australia foroa (Bilbon)*; Gasteizko Enplegu Foroa; *I. Biltzarra: La Orientación profesional como clave para la Empleabilidad universitaria de Granada*; *6th University Business Forum (Brusela)*; Enplegu Unibertsitatea Behatoki IV. Jardunaldiak (La Coruña).
- UPV/EHUko Nazioarteko Astean parte hartu dugu (Bilbo, Gasteiz, Donostia, 2014ko azaroa), eta UPV/EHUko Unibertsitate Orientaziorako Azoketan (Bilbo, Gasteiz, Donostia, 2015eko urtarrila).
- Lehen Aukera tituludunentzako enpresetako praktiken programa kudeatu dugu (2014eko eta 2015eko deialdiak).
- EPEZ IX programa kudeatu dugu, *Erasmus + Internship Graduates* programaren testuinguruan (2015eko apirila): 72 pertsona (%68 emakumeak eta %32 gizonezkoak), Alemania, Erresuma Batua, Irlanda, Italia, Portugal, Txekiar Errepublika eta Austriako enpresetan.
- *Santander-CRUE-CEPYME* beken programa kudeatu dugu. Enpresetako praktikak (2014/15 deialdia): 186 pertsonak praktikak egin dituzte, Euskal Autonomia Erkidegoko beste hainbeste enpresatan (%56,5 emakumeak eta %54,5 gizonezkoak).
- Elkano Bekak kudeatu ditugu (2014/15 deialdia): 17 pertsona, estatutik kanpo dauden enpresetan (%55,5 emakumeak eta %45,5 gizonezkoak).
- Garaituz Programa kudeatu dugu (2015eko deialdia): 95 pertsona, egoera ahulean dauden Gipuzkoako enpresetan (%52,6 emakumeak eta %47,4 gizonezkoak).
- TALENTIA programan parte hartu dugu (Bilbo, 2015eko martxo-maiatza): UPV/EHUko 95 parte hartzaile (%64,8 emakumeak, %35,2 gizonezkoak).

1.1.2. Ekintzailatzaren arloan laguntza eta aholku ematea ikasleei, autoenplegua sustatze aldera; kooperatiba eta enpresa arloko prestakuntza ematea.

- Sortutako enpresak: 17.
- Inkubazio fasean dauden enpresak: 33.
- Campusetan kultura ekintzailea sustatzeko jarduerak egin dira: ekintzaileak prestatzeko eta gidatzeko ikastaroak (Ekiten ikasten, enpresa berritzaileak sortzeko eta kudeatzeko programa, Agudezia, Ekitea eta haztea berrikuntzatik, Ikasberri); proiektu ekintzaileentzako sariak (Abiatu, Think big, Manuel Laborde, Inizia); ideia ekintzaileen lehiaketa (Etorkizulan, GAZE). Guztira, unibertsitateko 3.365 kidek parte hartu dute (%47 emakumeak, %53 gizonezkoak).

- Ezagutzan eta teknologian oinarritutako enpresen sorrera bultzatzeko eta kultura ekintzailea sustatzeko (ZITEK) Bizkaiko Foru Aldundiaren, BEAZen eta UPV/EHUren arteko hitzarmena berritu dugu.
- Diagnostiko teknologikoak martxan jartzeko proposamen bat diseinatu dugu, Bic Berrilaneekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera. Balizko 38 negozio ideia identifikatu dira, Gipuzkoako Campusean, eta horien artetik 15 proiektu berri jarri dira balioan.
- Gasteizko Udalak eta UPV/EHUk Araban ekintzailetza bultzatzeko izenpetutako hitzarmena berritu dugu.
- Arabako Enpresa eta Berrikuntza Zentroak (CEIA) eta UPV/EHUk hitzarmen bat sinatu dute, sustapen, aholkularitza eta laguntza programak egiteko, Arabako Campusean ekintzaileei laguntzeko eta oinarri teknologikoko enpresak sortzeko.
- Gasteizko Enpresa Zentroen Sareko ekintzaileentzako sustapen, aholkularitza eta laguntza jardueren antolakuntzan eta garapenean parte hartu dugu.

1.2. IKERKETARAKO BOKAZIOA SUSTATZEA

1.2.1. Ikerketako Zerbitzu Nagusietara bisita dibulгатiboak egiteko programa zehaztea, lanbide heziketako eta bigarren hezkuntzako ikastetxeekin.

- Lantokiko Prestakuntza Programan (LPP) aritutako ikasleen praktiken amaierako memoriak aurkeztu zitzaizkien tutoreei, dibulgazio jardunaldi baten bidez.

1.2.2. SGIker unitateak ikergune legez eskaintzea, graduako ikasleek praktika jarduerak egin ditzaten.

- Lehen jarduera egin da. Kimikako gradua egiten ari den ikasle batek Gradu Amaierako Lana egin du, Bizkaiko Analisisien Zerbitzu Nagusian.
- Bibliometriako edukiekin tailer bat eman zaie graduako ikasleei, Zientzia eta Teknologia Fakultatean.

1.2.3. Lantokiko Prestakuntza programako ikasleak SGIker unitateetan hartzea.

- Hiru hilabetez, Tartanga LHIko eta Elorrieta Erreka Mari LHIko Goi Mailako Prestakuntza Zikloetan diharduten 7 ikasle hartu dira (%71 emakumeak eta %29 gizonezkoak). Harrerako 5 unitateak hauek izan ziren: Genomika Zerbitzuaren Sekuentziazioa eta Genotipo Analisia (1, emakumea), Kalkulu Zientifikoko Zerbitzu Nagusia (1, gizonezkoa), Kudeaketa Bateratuko Arloa (2, emakume bat eta gizonezko bat), Bizkaiko Analisisien Zerbitzu Nagusia (1, emakumea) eta Mikroskopia Analitikoa eta Bereizmen Handikoa Biomedikuntzan (2, emakumeak).

1.3. IKASLEEN PARTAIDETZA, UNIBERTSITATEKO JARDUERETAN

1.3.1. Ikaskideen arteko Tutoretza Plana unibertsitateko beste ikastegi batzuetara zabaltzea.

- Ikaskideen arteko Tutoretza Plana UPV/EHUko 6 ikastegitan garatu dugu (Lan Harremanen Unibertsitate Eskola, Donostiako Erizaintza UE, Donostiako UE Politeknikoa, Eibarko Industria Ingeniaritzako UE, Gasteizko Irakasleen UE, Letren Fakultatea). Lehen mailako ikasleen 32 taldek parte hartu dute, azken mailetako 61 ikasle-tutorek lagundu dute (%64 emakumeak eta %36 gizonezkoak), eta 10

irakasle aritu dira ikasle-tutore horiei laguntzen (%50 emakumeak eta berdin gizonezkoak).

1.3.2. Ikasleen I. Partaidetza Planaren ezarpen eremua zabaltzea, eta partaidetza batzordeak sortzea.

- Ikasleen I. Partaidetza Planean jasotako ekintza zehatzak gauzatu dira, eta txosten honen jarduera espezifikoan atalean jaso ditugu, besteak beste: eztabaida liga, ikaskideen arteko tutoretza plana, batzorde parekidea, elkarteak eta arlokoak. Ekintza horiez gainera, IKD Gazte programa garatu, eta "Mikro-Polis" mikro saiakeren 1. edizioa antolatu dugu.

1.3.3. Ikasleen gaietarako Batzorde Parekidea sendotzea.

- Eztabaidan eta negoziazioan oinarritutako lan metodologia bat finkatu da, Zuzendaritza Taldeak eta Gobernu Kontseiluak erabaki behar dituzten eta ikasleei eragiten dieten gaiak lantzeko. Horren harira, ikasleen gaiak aztertzeko 10 bilera egin ditu Ba-tzorde Parekideak, 2014ko urritik 2015eko ekainera.

1.3.4. Ikasleen ordezkarien elkarte sektorialak finantzatzeko eta antolatzeko arautegia onartzea.

- Ikasleen kontseiluetako ordezkarien parte hartzea bultzatu dugu, estatuan egindako arloko 3 bileratan.
- Estatuan arloko 3 bilera egin dira: AEEEren biltzarra (Erizaintzako ikasleen estatuko elkarte), Bilbo, 2014ko azaroa; Ekonomia eta Enpresa Zientzien Ikasleen Estatuko Elkartearen biltzarra, Bilbo, 2015eko martxoa; Eraikuntzako Ingeniaritzako Ikasleen Arloko Elkartearen (ASAT) biltzarra, Donostia, 2015eko apirila.

1.3.5. Protokolo bat bultzatzea, taldeko ordezkariak aukeratzeko.

- Aholkularitza eman zaie hainbat unibertsitate ikastegiri, "Ikasleen ordezkarien protokoloa" lantzeko.

1.3.6. Ikasleei zuzendutako jardueretarako laguntzen berri zabaltzea ikastegietan, eta aholkua ematea.

- 29 ikastegiren eskariari erantzun zaie. Prozedura ikasleen gaietarako Batzorde Parekidean onartu zuten, 2014ko otsailaren 28an.

1.3.7. Unibertsitateko elkarteak sortzeko ekimenak bultzatzea.

- 10 elkarte berri erregistratu dira, eta gaur egun 29 daude erregistratuta.

1.3.8. G-9aren Unibertsitate arteko VII. Eztabaida Ligan parte hartzea.

- G-9aren VII. Eztabaida Ligan parte hartu dugu. Ligaren amaierako fasea Zaragozako Unibertsitatean egin zen, 2015eko apirilaren 15, 16 eta 17an, eta azken eztabaida, Aragoiko Gorteetan.

- 1.3.9. Unibertsitateko III. Euskarazko Eztabaida Liga antolatzea: inguruko 6 unibertsitate gonbidatzea (EAE, Nafarroa eta Iparraldekoak).
- III. Euskarazko Eztabaida Ligan parte hartu dugu. Amaierako fasea UPV/EHUko Letren Fakultatean egin zen, eta azken proba, berriz, 2014eko irailaren 23ean, Eusko Legebil-tzarrean.
- 1.3.10. UPV/EHUren irudia zabaltzen lagundu duten ikasleak saritzeko V. Deialdia
- Sarien deialdia 2014ko urrian argitaratu zen, eta sariak 2014ko abenduaren 15ean banatu zituzten, Bizkaia Aretoan.
- 1.3.11. Bat-batean sortutako zailtasun ekonomikoak dituzten ikasleei emandako itzuli beharreko laguntzak kudeatzea, eta deialdiari lotutako jarduera akademikoak antolatzea.
- Guztira, 27 eskari onartu dira (%46 emakumeak eta %54 gizonezkoak); horien artean, 11k (%54 emakumeak eta %46 gizonezkoak) eskudirutan ordaintzea hautatu dute, eta 16k (%36 emakumeak eta %64 gizonezkoak) berriz, eskudirutan ordaintzea gehi jarduerak egitea.

1.4. KALITATEZKO PRESTAKUNTZA, IREKIA ETA BERRITZAILEA

- 1.4.1. Enpresak sortzeko eta bestelako egoeretarako ekimena eta gizarte erantzukizuna bultzatzeko jarduerak garatzea.
- Ekintzaileak prestatzeko eta gidatzeko ikastaroak egin ditugu (Ekiten ikasten, enpresa berritzaileak sortzeko eta kudeatzeko programa, Agudezia, Ikasberri); proiektu ekintzaileentzako sariak (Abiatu, Think big, Manuel Laborde, Inizia); ideia ekintzaileen lehiaketak (Etorkizulan, GAZE). Unibertsitateko 3.365 kidek parte hartu dute (%47 emakumeak, %53 gizonezkoak)..
 - IKD GAZtEren beste edizio bat egin dugu (Curriculumaren baterako gizarte kudeaketa eta diziplinartekotasuna, ekimenaren zentzuaren ikuspegitik), Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatuta. Zazpi titulutako 59 ikaslek (%66 emakumeak eta %34 gizonezkoak) eta 8 irakaslek (%50 emakumeak eta berdi gizonezkoak) parte hartu dute talde eragilean, proiektuak garatu dituzten zortzi gizarte eragilerekin lankidetzan: Albaola, Gureak, Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK), Ingenieria Sin Fronteras / Mugarik Gabeko Ingeniaritza (ISF/MGI), Kalapie, UPV/EHU, La Salle Berrozpe, Elkartu.
 - Talde eragileak biltzarretarako lau komunikazio aurkeztu ditu: UEUk antolatutako IkerGazte (2015eko ekaina) euskaraz; European Conference in the Scholarship of Teaching and Learning (Dork, Ireland), ingelesez; 3rd International Congress of Educational Sciences and development (Donostia, 2015); eta, Congreso International Univest'15 (Girona, 2015) gaztelaniaz.
 - Ikasleen parte hartzea bultzatu dugu, Boluntarioen Autokudeaketa Programetan. Adibidez, Lehen laguntzei buruzko jardunaldi bat antolatu genuen Leioako Irakasleen UEko ikasleentzat, 2015eko martxoaren 25ean. Medikuntza Fakultateko ikasleek edukia diseinatu zuten, eta eskolak eman zituzten, borondatezko lan gisa. Irakasleen UEko 41 ikaslek (%90 emakumeak eta %10 gizonezkoak) parte hartu zuten, eta jasotako prestakuntzaren balorazio oso positiboa egin zuten. Bestalde, boluntarioen programan parte hartu zuten medikuntzako ikasleek uste dute ekimenak haien prestakuntza aberastu duela bai pertsona gisa bai medikuntzako profesional gisa.

- 1.4.2. Euskarazko irakasmaterialak argitaratzea, eta euskarazko material gutxi dagoen diziplinetan materialen sorkuntza bultzatzea.
- UPV/EHUko irakasleek sortutako 28 irakasmaterial argitaratu ditugu.
 - Sei eskuliburu tekniko euskaratu dira, eta 12 liburu argitaratu, euskaraz, material gutxien dagoen diziplinei lehentasuna emanez.
 - Hiru testu itzuli dira, LEGEAK-LEYES eta LIMES bildumetan.
- 1.5. UNIBERTSITATE AURREKO IKASLEEN ETA UNIBERTSITATEKO IKASLEEN ARTEAN GRADUEI BURUZKO EZAGUTZA ZABALTZEA**
- 1.5.1. Ikasleentzako Argibide Zerbitzua indartzea, unibertsitateko eta unibertsitate aurreko ikasleei irakaskuntzaren arloko informazioa helarazteko zubi izan dadin. Ikasleei unibertsitateko graduei buruzko banan banako informazioa ematea, eta aholku eta laguntza ematea.
- Banakako arreta eskaini zaie 4.550 pertsonari.
- 1.5.2. Bigarren hezkuntzako orientatzaileek eta helduentzako ikastetxeek unibertsitatearekin dituzten harreman bideak hobetzea.
- UPV/EHUri buruzko informazio saioak egin ditugu, EAetik kanpo, eskaera zehatz batzuei erantzuteko (Baionako Bernat Etxepare Lizeoa).
 - VI. Orientazio Topaketa antolatu dugu, hiru campusetan, 2015eko maiatzaren 20-22 artean. Guztira, EAEko batxilergoko eta lanbide heziketako ikastetxeetako bigarren hezkuntzako 357 orientatzailek (%74 emakumeak eta %26 gizonezkoak) parte hartu zuten, eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak ere bertaratu ziren.
 - UPV/EHUn sartzeari eta onartzeari buruzko informazio saioak eskaini dizkiegu bigarren hezkuntzako ikastetxeetako zuzendaritzei, hiru campusetan.
- 1.5.3. Jarduerak antolatzea unibertsitate aurreko ikasleei UPV/EHUri buruzko informazio akademikoa eta eskainitako ikasketen gaineko orientazioa emateko xedez: unibertsitateko orientazio azokak, Ateak Zabaltzeko Egunak, 25 eta 45 urtetik gorakoentzako informazio saioak, lan esperientziaren bidezko sarbidea, batxilergoko ikasleentzako jarduera praktikoen programa, goi mailako zikloetatik, ikasketa artistikoetatik eta kirol ikasketetatik sartzeko bidea.
- Orientazio Jarduera Praktiken Programa antolatu eta kudeatu dugu, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren laguntzaz, 2014ko abenduaren 2tik 2015eko martxoaren 3ra. Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeetako 3.047 ikaslek (%51 emakumeak eta %49 gizonezkoak) eta 84 irakaslek (%66 emakumeak eta %44 gizonezkoak) parte hartu zuten.
 - Unibertsitate Orientazio Azokak antolatu eta kudeatu ditugu, hiru campusetan, 2015eko urtarrilaren 24tik otsailaren 7ra. Guztira, 6.836 pertsona joan dira (%65 emakumeak eta %35 gizonezkoak).
 - Ateak Zabaltzeko Egunak antolatu eta kudeatu ditugu, hiru campusetan, 2015eko martxoaren 7tik 14ra, eta 5.064 pertsonak hartu dute parte (%59 emakumeak eta %41 gizonezkoak).

- "Informazio eta Orientazio Jardunaldia" antolatu eta kudeatu dugu, 25 eta 45 urtetik gorakoentzako probaren bidez eta lan esperientziaren egiaztapenaren bidez unibertsitatera sartzen diren pertsonentzat; guztira, 94 pertsona joan dira (%55 emakumeak eta %45 gizonezkoak).
- 1.5.4. UPV/EHUko eskaintza akademikoari buruzko informazio materialak eguneratzea: Graduako triptikoak eta eskuliburuak, jakintza arloen arabera antolatuta, eta Orientazio Gida.
- UPV/EHUko graduak azaltzeko materialak eguneratu ditugu.
- 1.5.5. IAZren jardueren berri zabaltzea, zerbitzuaren webgunearen bidez eta beste komunikabide batzuen bitartez.
- Webgunearen edukiak etengabe eguneratu ditugu. Hedabideetan agertu gara, orientazio arloan egindako lanen berri emateko.

1.6. IKASLEENTZAKO LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA

- 1.6.1. Eskaria egiten duten ikasleei laguntza psikologikoa ematea, hiru campusetan, Psikologia Aplikatuko Zerbitzuaren araudiari jarraituz.
- Arreta psikologikoa jasotzeko 179 eskari berri jaso ditugu, Psikologia Aplikatuko Zerbitzua ikastegietan ezagutzera emateko kanpainaren ondoren.
 - Zerbitzuak 211 pertsona artatu ditu, aurreko ikasturtetik kontsultan zeudenak barne (% 74,05 gradu edo lizentzietako ikasleak dira; % 73 emakumeak dira, eta % 27, gizonak).
 - Guztira, 978 saio egin dira. Pertsonako batez beste 4,6 saio egin ditugu, eta alta terapeutikoa lortu duten pertsonen batez beste 7,9 saio jaso dituzte.
- 1.6.2. Ikasleentzako programa psiko-hezitzaileak eskaintzea.
- Sei tailer psiko-hezitzaile egin ditugu, 3 campusetan: bost, "azterketetan antsietatea eta estresa kudeatzeari" buruz; eta, bat, "Eguneroko bizitzan emozioak kudeatzeari" buruz. Tailerretan, 80 pertsonak eman dute izena (emakumeak % 80,6, eta gizonak % 19,4).

2. PROGRAMA. ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEAK

2.1. GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEA ETA MODERNIZATZEA.

2.1.1. AZPkoen zenbait antolaketa egitura berraztertzea.

- Ikasturte honetan, AZPkoen hainbat antolakuntza egitura aztertu ditugu, eta unean uneko esku hartze zehatzak egin dira, lanpostuen zerrendetan aldaketak behar zituzten unitate jakin batzuetan. Hala, Gobernu Kontseiluak, 2014ko azaroaren 6ko bileran, hainbat aldaketa onartu zituen, eta 2014ko azaroaren 16ko EHAA eman ziren argitara. Era berean, 2015eko uztailaren 9ko bileran, lanpostuen zerrendaren beste aldaketa batzuk onartu zituzten, eta 2015eko uztailaren 16ko EHAA argitaratu ziren.
- Gobernu Kontseiluak, azken bilera horretan, zerbitzuetako organigramen egokitzapena onartu zuen.
- Amaitzeko, aipatzekoa da AZPko langile funtzionarioaren eta lan kontratadunaren Plangintza Batzordearen lan baldintzak bermatzeko Oinarrizko Akordioa, UPV/EHUk eta sindikatuen gehiengoak 2014ko irailaren 17an sinatutakoa, ikastegiak berrantolatzeko prozesuari begira. Akordio horretan, aldeek plantillaren hainbat alderdi aztertzeko eta negoziatzeko prozesu bat abiarazteko konpromisoa hartzen dute, hitzartutako lan bermeen errespetua muga izanik.

2.1.2. Ikastegien berrantolaketak eragindako aldaketak egitea, Lanpostuen Zerrendan eta organigrametan.

- UPV/EHUko ikastegiak berrantolatzeko prozesuaren aurrean, AZPko langile funtzionarioen eta lan kontratadunaren Plangintza Batzordeak lan bermeen gainean hartutako oinarrizko akordioan, hainbat jardura egiteko konpromisoa hartzen da, lanpostuen kudeaketaren arloan, hain zuzen:
 - Erreferentziazko langile zerrenda berrikustea
 - Lan karga aztertzea
 - Egiturak homologatzea
 - Plantilla modu egokian banatzea
- Azterketa prozesu hori amaitzean, egokiak diren aldaketak egingo dira lanpostu zerrendan eta organigrametan.

2.1.3. Giza Baliabideen Plana osatzeko lan taldea eratzea, ikastegien berrantolaketaren txostenean jasotakoari jarraituz.

- AZPko langile funtzionarioen eta lan kontratadunaren Plangintza Batzordeek 2015eko uztailaren 6an egindako bileretan lan taldea eratu zuten. Sindikatuetakoa eta UPV/EHUko ordezkariak modu parekatuan osatu zuten lan taldea, eta jardueren egutegi bat finkatu.

2.1.4. 2015eko lanaldiko zirkularra ezartzea, aldez aurretik sindikatuekin negoziatuta.

- UPV/EHUko gerentearen 2015eko ekainaren 1eko Erabakiaren bidez, 2015. urterako administrazio eta zerbitzuetako langileen lanaldia, ordutegia, oporrak eta baimenak zehazten dituen zirkularra onartu zen.

2.1.5. Lan poltsak eguneratzea.

- Alde batetik, argitalpenen eta arte grafikoen goi teknikariei (I. taldea) dagozkien beharrak aldi baterako ase daitezen lan poltsa eratzeko hautaketa prozesua amaitu da.
- Bestalde, administrazio eta zerbitzuetako lan kontratupeko langileei lotutako beste hiru lan poltsa ari dira izapidetzen ("III. taldeko langileak: Mekanika", "I. taldeko langileak: teknikari informatikoak-sistemetakoak", "I. taldeko langileak: teknikari informatikoak-aplikazioetakoak").
- Amaitzeko, administrazio eta zerbitzuetako langileen lan poltsak kudeatzeko aplikazioa korporazio langileak kudeatzeko sistemara migratzeko prozesua amaitu dugu. Horrek erabilera azkartu eta erraztuko digu, bai lan poltsen deialdi berriak egiteko, bai aldi baterako lanpostuetarako hautagaien zerrenda osoa kudeatzeko.

2.1.6. 2014-2017 aldirako Prestakuntza Plana garatzea.

- Aldi honetan, hainbat jarduera eskaini zaizkie administrazio eta zerbitzuetako langileei, eta urteko kudeaketa planen inguruan egituratu ditugu, 2014-2017 Prestakuntza Plana garatzeari begira.
- Era berean, unibertsitateen G9 taldearen baterako plataformaren testuinguruan, administrazio eta zerbitzuetako langileentzako prestakuntza mantendu dugu, eta guztira 25 ikastaro eskaini ditugu, teleprestakuntzako modalitatean.

2.1.7. Telelaneko plan pilotuaren balorazioa egitea, eta, egoki iritziz gero, telelana ezartzea.

- 2014ko urriaren 31n, UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langileentzako telelanaren plan pilotua amaitu zen.
- Horretarako eratutako jarraipen taldeak egindako lanen txosten bat aurkeztu zuen, 2014ko azaroaren 10ean.
- Ebaluazio Batzordeak deialdiaren oinarrien 20. artikuluan aurreikusitako txostena egingo du, gero Akordioaren Negoziazio Batzordeak Plan Pilotuaren emaitzak eta aukera hori behin betiko ezartzeko aukara azter ditzan.

2.1.8. Gogobetetze inkestak osatzea, hobekuntza planak ezartze aldera.

- Hobekuntza neurriak sartzeko oinarritzat hartuko ziren ondorioak lortzeko, administrazio eta zerbitzuetako langileei egin nahi zitzaien gogobetetze inkestaren galdetegi eredu diseinatu ondoren jakin genuen ordurako UPV/EHUko ikertalde batek antzeko inkesta bat igorri zuela. Inkesta horren bidez, ikertalde horrek unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako langileen asebetetze, inplikazio eta motibazio maila ezagutu nahi zuen, hura areagotzeko asmoz.
- Baliabideen kudeaketa ez-eraginkorra eragiten duten eta jarduera horren helburua lortzeko kaltegarriak izan daitezkeen bikoiztasunak saihesteko, inkesta bertan behera uztea erabaki genuen.

2.2. ENPLEGUAREN KALITATEA ETA EGONKORTASUNA

2.2.1. LEPrako Batzorde Teknikoa eratzea.

- Arlo honetan, helburutzat planteatu dugu ahal bezain besteko etekina ateratzea, langileen birjartze tasan oinarritutako sarbide prozedurak deitzeko gaur egungo araudiak aurreikusten dituen aukera eskasei.
- Hala, 2015eko ekainaren 25ean, AZPko langileen eta irakasle-ikertzaileen Negoziazio Batzordean akordio bat hartu zuten, eta, horren arabera, AZPkoen birjartze tasatik eratorritako 9 plazak irakasle-ikertzaileentzat izango dira, eta horiek konpromiso bat hartzen dute, datorren urtean irakasle-ikertzaileen birjartzen tasatik eratorritako plazak AZPko langileen taldera sartzeko.

2.2.2. Aplikatu beharreko araudia aztertzea, Erretiroen Batzorde Teknikoan.

- Erretirora igarotzeko hainbat neurri buruzko 2010eko uztailaren 15eko akordioaren indarraldia 2014ko abenduaren 31n amaitu zen; hortaz, haren aurreikuspenak bertan behera geratu ziren, 2010ean sinatutako irakasle-ikertzaileen eta AZPko langileen hi-tzarmen kolektiboetan sartu, eta, beraz, aplikagarriak diren hainbat neurri salbuetsita.
- Bai 2014. urtea amaitu baino lehen bai 2015ean, negoziazio mahaiek hainbat bilera egin dituzte, eta azkenean UPV/EHUn erretiroa hartzeari eta egoera horretara igaro-tzeari lotutako beste neurri batzuk lantzeko Batzorde Teknikoaren Akordioa onartu zuten, 2015eko uztailaren 24an.

2.3. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA

2.3.1. Hauteskunde sindikaletarako prozesua prestatzea eta betetzea.

- UPV/EHUko langileen ordezkariak hautatzeko prozesua lau urtean behin egiten da, eta prozesu horretan, AZPko langile eta irakasle-ikertzaile funtzionarioen langile ba-tzarrak eta lan kontratupeko AZPko langileen eta irakasle-ikertzaileen enpresa ba-tzordeak eratzen dira.
- 2014ko abenduaren 12an hasi zen, sindikatuek aurretiko abisua aurkeztearekin batera, hauteskundeak egiteko egutegiari, bitartekoei eta baldintzei buruz 2014ko abenduaren 15ean sinatutako Akordioaren esparruan.
- Prozesu horren bultzada eta erantzukizuna sindikatuei dagokien arren, azkenean Langileen Gerenteordetzak prestatzen du dokumentazioa, eta parte hartzen duten per-tsona eta jarduera guztien koordinazioaz eta kudeaketaz arduratzen da.
- Mugarri nagusiak hauek izan dira:

- Urtarrilak 12	Hauteskunde mahaia osatzea
- Urtarrilak 12	Behin-behineko erroldak aurkeztea
- Urtarrilak 12-19	Behin-behineko erroldari erreklamazioak egiteko epea
- Urtarrilak 21	Erroldaren kontra aurkeztutako erreklamazioak ebatzea.
- Urtarrilak 23	Behin betiko erroldak argitara ematea
- Urtarrilak 26/otsailak 4	Hautagaitzak aurkeztea
- Otsailak 9	Behin-behineko hautagaitzak jakinaraztea
- Otsailak 10-11	Hautagaitzen kontra erreklamazioak aurkezteko epea
- Otsailak 13	Hautagaitzak behin betiko jakinaraztea
- Otsailak 23/martxoak 9	Hauteskunde kanpaina
- Martxoak 10	Hausnarketarako eguna
- Martxoak 11	Bozketa eguna
- Martxoak 17	Behin betiko emaitzak jakinaraztea

3. PROGRAMA. IRAKASLEAK ETA IKERTZAILEAK

3.1. JARDUN AKADEMIKOAREN PLAN

3.1.1. Jardun Akademikoaren Planak 2013/14 eta 2014/15 ikasturteetan izandako emaitzak aztertzea, eta Jardun Akademikoaren Planaren hirugarren ediziorako hobekuntza plana aurkeztea.

- 2013/2014 eta 2014/2015 ikasturteetako emaitzak aztertu ditugu, eta hobekuntza proposamena aurkeztu dugu, 2015eko uztailan egindako Gobernu Kontseiluan.

3.2. IRAKASLE ETA IKERTZAILEEN PLAN ZUZENDARIA

3.2.1. Irakasleen lehenengo plan zuzendariak emandako emaitzak aztertzea, eta bigarren plan zuzendaria osatzeko lanekin hasia.

- Ez da egin proposatutako jarduera.

3.2.2. Irakasleen eta ikertzaileen promozioa eta egonkortasuna ahalbidetuko duten politikak diseinatzea eta ezartzea.

- Lan Eskaintza Publikoa onartu da, 2015eko uztailko Gobernu Kontseiluan.
- Beste deialdi bat egin da sabbatikoak eta doktorego tesirako lizentziak hartzeko.
- Hartutako konpromisoak mantentzen dira.

3.3. IRAKASLEEN ETA IKERTZAILEEN PRESTAKUNTZA

3.3.1. Irakasle eta ikertzaileentzako prestakuntza programak diseinatzea eta garatzea, haien promozioa errazte aldera.

- Gobernu Kontseiluak 2015eko otsailaren 5ean onartutako Irakasleen Hobekuntzarako Planari dagokion 2015eko deialdia egin dugu.

3.3.2. Irakasleak prestatzeko eta irakaslan eguneratzeko ikastaroen eskaintza hobetzea.

- Guztira, 52 ikastaro egin ditugu (9 Araban, 28 Bizkaian, 10 Gipuzkoan, eta beste 5, hiru campusetan). Guztira, 707 ordu eman dira, eta 1.146 pertsonak eman dute izena (%63 emakumeak eta %37 gizonezkoak).
- Genero eta berdintasunaren arloko prestakuntza eskaintza mantendu dugu, Berdintasunerako Zuzendaritzaren lankidetzarekin, eta eskaintza hau egin dugu: "Diskurtsoa eta generoa: euskararen erabilera ez sexistatik diskurtso barne-hartzaile", "Introducción de la perspectiva de género en los ámbitos científico y tecnológico" eta "Pautas para el análisis feminista en el ámbito jurídico-económico".
- On-line prestakuntza eskaintza mantendu dugu, "eGela"ren bidez eta Campus Birtualaren lankidetzaz.
- UPV/EHUko hiru campusetan, "Irakasle Berrien Harrera Jardunaldia" antolatu dugu, eta 101 pertsonak parte hartu dute (%61 emakumeak eta %39 gizonezkoak).

- Berririo eskaini dugu “Doitu: zer egin dezaket nire irakats plangintza hobetzeko” izeneko ikastaroa, parte hartzaileek irakaslanaren plangintza eta garapena hobe dezaten eta Docentiaz programan aurkezteko presta daitezten. Bi ikastaro egin dira maila orokorrean, non 26 parte hartzaile izan diren (%62 emakumeak eta %38 gizonezkoak), eta beste bi ikastaro eman dira, ikastegi jakinetan (Donostiako Politeknikoa eta Gasteizko Farmazia), non 27 parte hartzaile izan diren (%48 emakumeak eta %52 gizonezkoak).
- “UPV/EHUko irakaskuntza gidak egokitzeko argibideak” izeneko 12 ikastaro eman dira, eta guztira irakasgaietako 302 koordinatzailek (%63 emakumeak eta %37 gizonezkoak) eta zuzendaritza taldeetako hainbat kidek parte hartu dute. Era berean, HELAZen webgunean, “Irakaskuntza gidak Gaur-en betetzeko jarraibideak” izeneko laguntza materiala argitaratu dugu.
- Hasiberriak programaren emaitzen txostena eta argibideak aurkeztu ditugu, UPV/EHUUn garapen akademikorako programa integral baten oinarriak finkatzeko. Programa horrek irakaskuntza, ikerketa eta kudeaketa aurreratuaren alderdiak jasoko ditu, eta alderdi horiek ibilbide argi eta mailatu batenez augarriak finkatuko dituzte. Eraketa fase honetan, batzorde bateratu batek proposamena egingo du, Irakasleen errektoreordearen gidaritzapean, eta harekin batera egongo dira Ikerketako, Graduako Ikasketetako, Berrikuntzako eta Hizkuntza Aniztasuneko errektoreordeak.
- Gida bat prestatu dugu, paperean eta euskarri digitalean, irakasle sartu berriei lagun-tzeko eta orientazioa emateko, eta 2015eko irailean argitaratuko da.

4. PROGRAMA. GRADUKO ESKAINTZA IREKIA ETA BERRITZAILEA

4.1. KALITATEZKO PRESTAKUNTZA, IREKIA ETA BERRITZAILEA

4.1.1. Ikasketen kalitatea hobetzea, tituluen jarraipenerako txostenen ebaluazioak eta emaitzak oinarri hartuta.

- Jarraipen autotxostenak egiteko adierazleen zuzenketa egonkortu da, eta Unibaskera bidali ditugu 2014/2015 ikasturtean emandako graduako 87 tituluren jarraipen autotxostenak.
- Ikastegietako urteko kudeaketa txostenean, honako hauen berri eman behar da aurrerantzean: Ehundu programaren esparruan ezarritako konpromiso adierazleak –gradu berrien 4. mailakoak–, ikastegiaren kudeaketaren adierazle gakoak emaitzak, eta haren kudeaketa sistemaren barne auditoria, AUDIT programaren elementuekin alderatuta.
- Bosgarren konpromiso dokumentua jarri da martxan 30 ikastegitan, Ehundu programaren testuinguruan.
- Graduako tituluen jarraipen autotxostenak eta ikastegietako urteko kudeaketa txostenak egin ondoren, jarraipen eta konpromiso adierazleak aztertu ditugu, baita ikastegi bakoitzaren adierazleak ere, eta hobekuntza ekintzak planteatu dira, bai tituluetarako bai ikastegietarako. Ekintza horiek aipatutako dokumentuetan jasota daude, eta horien gauzapena datorren ikasturtean aztertuko dugu.

4.1.2. Apurka-apurka ikasketa planetan metodologia aktiboak ezartzen jarraitzea, eta irakasle taldeen parte hartzea bultzatzea.

- 2014/2015 ikasturtean metodologia aktiboak buruzko prestakuntza eman zaie 63 irakasleri (%54 emakumeak eta %46 gizonezkoak), eta prestakuntza prozesuari ekin diote sartu berri diren 65 irakaslek (%57 emakumeak eta %43 gizonezkoak). Guztira, 309 irakaslek (%60 emakumeak eta %40 gizonezkoak) jaso dute metodologia aktiboak buruzko prestakuntza; horrez gain, 63 aholkulari (%57 emakumeak eta %43 gizonezkoak) metodologia horiei buruzko prestakuntza ari dira ematen, unibertsitateko gradu guztietan.
- Indartu egin da lan ildo hau irakaskuntza taldeen mailan edo diziplinarteko ikuspegitik, Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektuen bidez (HBP):
 - a) Abenduan amaitutako 2012-2014 deialdian, 250 pertsonak (%58 emakumeak eta %42 gizonezkoak) parte hartu dute, 34 proiekturen inguruan. Deialdi horren emaitza gisa, 70 argitalpen zientifiko eta biltzarreko komunikazio baino gehiago egin dira.
 - b) 2014-2016 deialdia 2015eko martxoan hasi zen; 47 eskaera eta diruz lagundutako 26 berrikuntza proiektu daude, eta 201 pertsona ari dira parte hartzen (%62 emakumeak eta %38 gizonezkoak). Deialdi honetan, bi modalitate bereizten dira: HBT (Hezkuntza Berrikuntzarako Taldeak) proiektuak eta HBT ADITUAK (Hezkuntza Berrikuntzarako Talde Adituak) proiektuak, hezkuntza berrikuntza espezializatutako taldeentzat. Hasteko, lau talde daude: Farmaziakoa, Ekonomiakoa, Hezkuntzakoa eta Meatzeen Ingeniaritzakoa.
- ELEJALDE, M.J eta PEREIRA, J.A. (2014) egileen "Los grados universitarios: posibilidades y caminos de innovación" liburua argitaratu du UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuak, eta ADDIn zabaldu da. Liburuak hezkuntza berrikuntzarako hainbat proiekturen emaitzak jasotzen ditu.

- Metodologia Aktiboen Baliabideen Zentroa finkatu da, eta guztira 169 lan argitaratu dira, IKD Baliabideak zentroan.

4.1.3. Tituluei buruzko informazio garrantzitsua eskuragarri dagoela bermatzea, adierazleen eta ebidentzien gardentasuna bultzatuta.

- ARTUS datu-basean UNIKUDE-UISI agertokia sortu da, ikastegiek eta Master eta Doktorego Eskolak emaitzak eskura izan ditzaten, bai tituluen jarraipena eta egiaztapena egiteko, bai beharrezkoak diren ebidentziak osatzeko eta ikastegi bakoitzaren kudeaketa sistemei atxikitzeko, UNIKUDE aplikazioaren laguntza.
- Informazio publikoa berritu dugu webgunean; hartara, gradu eta master guztiek informazio esparru bateratu bat edukiko dute, honako hauek aurkezteko: Titulu bakoitza egiaztatzeke memoria; agentzien (ANECA eta UNIBASQ) txostenak; Unibertsitate, Zentro eta Tituluen Erregistrora (gaztelaniaz RUCT) sartzeko esteka; UNIBASQera igorritako jarraipen autotxostenak; agentziak igorritako jarraipen txostenak; eta, titulu bakoitzaren egiaztapena berritzeko autoebaluazio txostenak.

4.2. GRADUKO ESKAINTZA, EUSKAL GIZARTEAREN PRESTAKUNTZA PREMIETI AURRE EGITEKO

4.2.1. Tituluak inguru sozioekonomikora egokitzea.

- 2014/2015 ikasturtean, Fisikako eta Ingeniaritza Elektronikoko Gradu Bikoitza gradua ezartzearekin batera, titulu bikoitzen eskaera gero eta handiagoari erantzun zaio.
- Graduko Ikasketen Plan Estrategikoa diseinatzeko hasi gara.

4.2.2. Prestakuntza birtualerako kalitatezko proposamenak bultzatzea, etengabeko prestakuntza premiak asetzeko ere balioko dutenak.

- Prestakuntza jardunaldiak antolatu ditugu e-learning-eko teknikarientzat, multimedia materiala diseinatu, sortu, banatu eta ustiatzeko behar diren baliabideak erabil-tzen ikasteko.
- "Ikasbar 2015 International Conference" kongresuaren antolakuntzan parte hartu dugu, MOOC edo On-line Ikastaro Masibo Irekietan, PLE edo Ikaskuntza Inguru Pertsonalei eta LMS edo eLeargingeko plataformei buruzko azken lanak zabaltzeko asmoz (Ikaskuntza Administrazio Sistemak).
- MOOC prestatzeko buruzko prestakuntza jardunaldi bat antolatu dugu, UPV/EHUren I. deialdian parte hartu duten irakasleentzat.
- MOOC ikastaro hauek eman dira: Pentsamendu konputazionala eskolan; Asma haurrengan: XXI. mendeko epidemia; Gizarte erantzukizuna eta jasagarritasun txostenak; eta, Etika, unibertsitateko ikerketetan.
- Bigarren deialdia ireki dugu UPV/EHUko irakasleentzat, 8 MOOC prestatzeko. Hautatutako ikastaroak 2015/2016 ikasturtean emango dira.

4.3. ESPERIENTZIA GELETAKO IKASKETA ESKAINTZA

4.3.1. Esperientzia Gelek gizartean duten proiektzioa zabaltzea, prestakuntza eskaintza hau hobeto ezagutzeko bidea ematen duten jardura eta ekimenen bidez.

- Arabako Campusean, hainbat elkarrizketa egin dizkiete geletako zuzendari eta ikasleei, Radio Vitorian, Onda Ceron eta RNE. Era berean, erreportaje bat eta ikasleei egindako hainbat elkarrizketa eman zituzten ETB2n, eta El Correo eta Diario de Noticias de Álava egunkarietan, 2014/2015 ikasturtearen hasierako eta amaierako ekitaldiei buruzko albisteak argitaratu zituzten.
- Bizkaiko Campusean, Esperientzia Gelek gizartean duten proiektzioa areagotzeko ekintzak hauek egin dira: hedabideei dagokienez, erreportajeak eman zituzten ETB1n eta ETB2n, gelak aipatu zituzten Radio Popularren, Onda Ceron eta Euskadi Irratian, eta gelei buruzko albisteak agertu dira Bilboko Udalaren egunkarian.

Era berean, BECen (Barakaldo) egindako FERIA Nagusian parte hartu genuen, 2014ko urrian, eta ateak zabaltzeko egun bat antolatu genuen, 2015eko maiatzean. Egindako beste jarduera batzuen artean, 8 zine-forum eman ziren, 4 erakusketa antolatu ziren, eta 3 hitzaldi eskaini ziren, 2014ko urritik 2015eko maiatzera.

- Gipuzkoako Campusean, berriz, ekintza hauek egin dira: hedabideetan, Info 7 Irratiak Esperientzia Gelei buruz egindako mahai inguru batean parte hartu genuen, eta Berriak erreportaje bat argitaratu zuen, XIII. promozioeko egresatuei diplomak banatzeko ekitaldiaren harira. Tele Donostik ere ekitaldi horren jarraipena eta zuzeneko emanaldia egin zuen.

Bestalde, Donostian martxan diren kultura proiektu eta dinamiketan, hots, Donostia 2016eko Kultura Hiriburutzan eta Tabakaleran (Kultura garaikideko nazioarteko zentroa), gelak txertatzeko hitzaldiak egin dira. Halaber, Esperientzia Geletako ikasleen III. arte erakusketa antolatu zuten, Pabiloia campusean, eta ikasleek geletatik kanpo antolatutako programetan hartu dute parte, hala nola "Mindfulness", "Hazi eta Ikasi", "Eskena Teatro".

4.4. IKASLEEN PRESTAKUNTZA OSOA

4.4.1. Zeharkako prestakuntzarako jarduerak bultzatzea.

- Ikasleen parte hartzea bultzatu da, Boluntarioen Autokudeaketa Programetan.
- Lehen laguntzei buruzko jardunaldi bat antolatu zen, Leioako Irakasleen UEko ikasleentzat, 2015eko martxoaren 25ean. Medikuntza eta Odontologia Fakultateko ikasleek diseinatu zuten edukia, eta eskolak eman zituzten, borondatezko lan gisa. Irakasleen eskolako 41 ikaslek parte hartu zuten (%90 emakumeak eta %10 gizonezkoak).
- Garapenerako Lankidetzari buruzko 11 ikastaro monografiko eman dira, eta 244 ikaslek parte hartu dute (% 77 emakumeak). Ikastaroetan hainbat gizarte erakundek parte hartu dute, eta hainbat arlotan izandako esperientziak azaldu dituzte, hala nola osasunean, ingurumenean, hezkuntzan edo giza garapenerako teknologietan.

4.5. TITULUDUNEN LANERATZEA

4.5.1. Lan arloko erakundeekin akordioak bultzatzea, praktikak eta gradu amaierako lanak egiteko.

- 2014/2015 ikasturtean, 6.047 hitzarmen izenpetu ditugu hainbat enpresa eta erakunderekin, curriculum praktikak egiteko, eta guztira 5.715 ikaslek parte hartu dute (%74 emakumeak eta %26 gizonezkoak). Curriculumez kanpoko praktikei dagokienez, 2.277 hitzarmen izenpetu ditugu, eta 3.782 ikaslek (%51,5 emakumeak eta %48,5 gizonezkoak) hartu dute parte.

4.6. TITULAZIOEN AKREDITAZIOAK BERRITZEA LORTZEA

4.6.1. Ikastegiei aholku eta laguntza ematea, AUDIT programaren bidez, Kalitatearen Bermerako Barne Sistema (KBBS) ezartzeko.

- Lankidetzan jardun dugu atxikitako zentroekin (Merkataritza Ganbera eta IMH), beren KBBSak amaitzeko eta AUDIT programaren bidez beren ziurtagiriak eskuratzeko. Gasteizko Erizaintza Eskolari atxikitako zentroari dagokionez, dagoeneko badu ziurtagiri hori eta zentroan UNIKUDE ezartzeko prozesua amaitu du. Ikasturte honetan, aplikazioaz baliatuta, Jarraipen Autotxostena eta Autoebaluazio Txostena egin dute.
- UNIKUDE-Master aplikazioa aldatu dugu, Master eta Doktorego Eskolako Kalitatearen Barne Bermerako Sistema definitzeko eta haren prozesuen eta prozeduren mapa hedatzeko. Masterretako jarraipen autotxosten guztiak eta ziurtagiria berritzeko autoebaluazio txostenak egin dira, aplikazioaren laguntzaz.
- UNIKUDE aplikazioa erabiltzeko lankidetzan jarraitu dugu ikastegiekin, jarraipen autotxostenak egiteko, Kalitatearen Barne Bermerako Sistemak hedatzeko, eta EHUNDU programaren konpromiso dokumentuak integratzeko.

4.6.2. Tituluen autoebaluazio txostenak egokitzea akreditazioa berritzeko protokoloetara.

- UNIKUDE-Master aplikazioa eguneratu dugu, masterretako jarraipen adierazleak autoebaluazio txostenen edukietara egokitzeko, masterren akreditazioa berritze aldera.
- 53 masterren akreditazioa berritzea lortu dugu, eta 80 graduako titulu eta 22 master gehiago aurkeztu ditugu, akreditazioa berritzeko. 80 tituluen behin-behineko txostenak aldekoak izan dira.
- Prestakuntza zuzena eman zaie UPV/EHUko 31 ikastegiei, eta haien zuzendaritza talde guztiek parte hartu dute, kalitateko teknikariekin, kalitate batzordeetako kideekin eta AZPko langileekin batera. Txostenak egiten ikasteko prestakuntza izan da, arreta berezia jarrita urteko kudeaketa txostenetan eta tituluen akreditazioa berritzeko autoebaluazio txostenetan.

4.6.3. Irakaskuntza jarduera ebaluatzeko prozesuetan irakasleen partaidetza arautzea.

- Docentiaz programari buruzko prestakuntza saioak eskaini ditugu FOPU programaren barnean, hiru campusetan. Gainera, prestakuntza saioak eman ditugu hainbat ikastegitan, zuzendaritza eta dekanotza taldeek eskatuta. Horren ondorioz, programaren bosgarren deialdian, irakasleen parte-hartzea mantentzea lortu dugu, aurreko deialdiari dagokionez.
- Webguneko informazioa eguneratu dugu, eta haren prozeduraren gardentasuna hobetu.
- Ikastegietako zuzendaritza eta dekanotza taldeei dagokien emaitzen txostena igorri zaie.

5. PROGRAMA. NAZIOARTEAN ERAKARGARRIA IZANGO DEN GRADUONDOKO ESKAINTZA, GURE INGURU EKONOMIKO ETA SOZIALERA EGOKITUA

5.1. GRADUONDOKO ESKAINTZA JASANGARRIA ETA KALITATEDUNA

5.1.1. Ikerketako master lehiakorrek eta master profesionalak bultzatzea.

- 2014/15 ikasturtean, 111 master eman dira: ikerketara bideratutako 83, eta lanera bideratutako 28.

5.1.2. Master profesionalak bultzatzea, praktikak eta master amaierako lanak egiteko xedez erakundeekin hitzarmenak eginda.

- 2014/15 ikasturtean, dagoeneko baimenduta dauden 9 master profesional edo horien antzekoak emateaz gainera, jarraian aipatutako masterrak izapidetu ditugu, eta ANECAren aldeko txostena jaso dute:
- Kontuen Ikuskaritza eta Goi Mailako Kontabilitatea
- Arkitektura
- Master profesionalek edo antzekoek hainbat hitzarmen izenpetu dituzte, praktikak edo master amaierako lanak egiteko, kanpoko irakasleek parte hartzeko edo finantzaketa lortzeko:
 - "Laneko Segurtasuna eta Osasuna" unibertsitate masterra: praktikak egiteko eta master amaierako lanak zuzentzeko 29 hitzarmen ditugu, eta, horrez gain, OSALANekin sinatutako hitzarmen bat, masterrekoak ez diren irakasle gehienak finantzatzeko.
 - "Irakasleen Prestakuntza" unibertsitate masterra: hitzarmen ugari ditugu ikastetxe publiko nahiz pribatuarekin, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta UPV/EHUren arteko oinarritzko hitzarmenaren bidez kudeatzen direnak, ikasle guztiek nahitaezko praktikak egiteko aukera izan dezaten.
 - "Abokatutza" unibertsitate masterra: Hitzarmen bana izenpetu dugu Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko abokatuen elkargoekin, nahitaezko praktikak hainbat bulego eta bufetetan egiteko. Horrez gain, masterrean kanpoko profesionalek emandako irakaskuntzaren % 50 arautzen da, Gipuzkoa eta Bizkaiko elkargoekin sinatutako hitzarmenen bidez.
 - "Osasun Psikologia Orokorra" unibertsitate masterra: 13 lankidetzak hitzarmen sinatu ditugu fundazioekin eta beste erakunde batzuekin, curriculum praktikak egiteko.
 - "Kontuen Ikuskaritza eta Goi Mailako Kontabilitatea" unibertsitate masterra: 5 hitzarmen izenpetu ditugu, curriculum praktikak egiteko.

5.1.3. Prestakuntzarako zeharkako jarduerak egitea, bai hizkuntza ofizialetan bai ingelesez, laneratzea sustatzeko, diziplinartekotasuna indartzeko, konpromiso etiko eta soziala sendotzeko, eta ikasleen ekintzailerak bultzatzeko.

- Mugaz gaindiko dok barnetegiak antolatu ditugu (4. edizioa, 2014ko urria), Arantzazun bigarrenkoz, Paue eta Aturriko Herrialdeetako Unibertsitatearekin elkarlanean (ikus 5.3.4).

- UPV/EHUko 10 doktoregaik (90 doktoregaietatik) G-9 taldearen doktorego jardunaldietan parte hartu zuten, 2014ko azaroan, Almagron (Ciudad Real).
 - Master eta Doktorego Eskola zeharkako doktorego prestakuntzari lotutako jardueren katalogoa garatzen hasi da, eta, mugaz gaindiko barnetegiez gainera, ikastaro hauek eskaini ditu:
 - “English for International Congresses” 40 orduko ikastaroaren bi edizio, bat Bizkaiko campusean, eta bestea Gipuzkoakoan.
 - UPV/EHUko Liburutegiak antolatutako “Doktorearentzako tresnak eta baliabideak” ikastaroaren hiru edizio (campus bakoitzean bat).
- 5.1.4. Bizitza osoko prestakuntzako eredu jasangarria diseinatzea, irizpide akademikoekin eta premia sozioekonomikoekin bat datorrena.
- Berezko tituluetan matrikulatutako ikasleen kopurua 700 ikasle ingurukoa izan da, eta 40 titulu inguru eskaini ditugu. Era berean, 2013/14 ikasturtean, 1.164 ikaslek egin zituzten ikasketa osagarriak, eta 2014/15 ikasturtean, berriz, kopurua 1.553ra iritsi da. Bestalde, etengabeko prestakuntzako moduluen eskaintza ere nabarmen handitu da: 2013/14 ikasturtean 39 modulu eskaini genituen, eta 2014/15 ikasturtean, 81.
- 5.1.5. Prestakuntza iraunkorra bultzatzea, lehentasuna emanez euskarazko eskaintzari eta euskal kulturari lotutako gaiei.
- 2014-2017 Graduondokoen Plan Estrategikoan, helburu estrategikotzat hartzen da euskal lurralde eta kulturarekin lotura berezia duten ikasketak indartzea.
- 5.1.6. Urrutiko irakaskuntzan, graduondokoen eskaintza bultzatzea.
- 2014-2017 Graduondoko Ikasketen Plan Estrategikoan, graduondokoen urrutiko eskaintza bultzatzea ezarri da, helburu estrategiko gisa.
- 5.1.7. Espediente bikaindun ikasleen partaidetza sustatzea, gure masterretan
- UPV/EHU masterrak egiteko laguntzen deialdi bat egin dugu. 2014/15 ikasturtean, 3.000 €-ko 40 laguntza banatu dira, Euskal Autonomia Erkidegoko masterretako ikasleen artean. Era berean, 4.500 €-ko 13 laguntza eta 2.250 €-ko laguntza 1 eman zaizkie beste autonomia erkidego batzuetako eta beste herrialde batzuetako ikasleei.
- 5.1.8. Graduondokoen eskaintzari buruzko informazioa eta komunikazioa hobetzea webgunean, bai bi hizkuntza ofizialetan, bai ingelesez.
- Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordetzaren eta Master eta Doktorego Eskolaren webguneetan egindako hobekuntzei esker, graduondoko ikasketa ofizialen eskaintza euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez kontsulta daiteke.
 - Horrez gain, master eta doktoregoetarako izena ematea eta matrikula GAUREn bidez egin daitezke, hiru hizkuntzetan.

5.2. GRADUONDOKO PLAN ESTRATEGIKOA

5.2.1. Graduondokoen Plan Estrategikoa (2014-2017) ezartzen hastea, egungo eskaintza moldatu eta euskal gizarteak dituen premiei hobeto egokitutako eskaintza bat egiteko.

- Gobernu Kontseiluak Graduondoko Ikasketen Plan Estrategikoa aho batez onartu ondoren, 2015eko martxoaren 4an, 5ean eta 6an, informazio jardunaldiak antolatu ziren, master eta doktorego programen arduradunentzat. Bertan, Plan Estrategikoaren lan batzordeek egindako lana azaldu zuten, eta plana ezartzeko oinarrizko tresna den konpromiso dokumentuaren adierazleak aurkeztu zituzten.
- 2015eko lehen lauhilekoan, konpromiso dokumentuen adierazleen balioak kalkulatu zituzten, master bakoitzerako, eta dokumentu horiek batzorde akademikoetako kideei bidali zitzaizkien. Adierazleen balioak aztertzeke eskatu zitzairen, egon zitezkeen akatsak hauteman eta konpromiso dokumentua hobetzeko iradokizunak egin zitzaizkien.

5.3. MASTER/DOKTOREGOKO PROGRAMAK

5.3.1. Master eta doktorego programetako koordinatzaileei laguntza ematea, jarraipen eta akreditazio prozesuetan.

- Jarraipen eta akreditazio prozesuetan aholkularitza eta laguntza eman zaie master eta doktorego programetako batzorde akademikoei.
- Prozesu horretan sartuta zeuden 55 masterren akreditazioa berritzea lortu dugu, eta prozesu horretan sartuko diren 22 masterren akreditazioa berritzeko laguntza eman dugu.
- 89 unibertsitate masterren jarraipen txostenak aurkeztu ditugu.

5.3.2. Doktorego programei laguntza ematea, bikaintasuneranzko aipamena lor dezaten.

- Gaur egun ez dago indarrean Bikaintasuneranzko Aipamenerako deialdi bakar bat ere.

5.3.3. Doktorego tesietako zuzendariei prestakuntza ematea, doktoregaiak zuzentzeari eta tutore lanak egiteari buruz.

- Kudeaketa lanak hasi dira egiten, doktoregaien zuzendaritzari eta tutoretzari buruzko prestakuntza plan bat egituratzeko, doktorego tesien zuzendarientzat.

5.3.4. Mugaz Gaindiko Dok Barnetegen programa sustatzea.

- Mugaz gaindiko dok barnetegiak antolatu ditugu (4. edizioa, 2014ko urria), Arantzazun bigarrenkoz, Paue eta Aturriko Herrialdeetako Unibertsitatearekin elkarlanean, eta 80 doktoregaik parte hartu dute -UPV/EHUko 40k-. Laurogei parte hartzaile horien artean, Bordeleko Unibertsitateko (5) eta Zaragozako Unibertsitateko (3) gonbidatuak izan ziren.
- Mugaz gaindiko dok barnetegen 5. edizioa antolatzeko lanak aurreratu dira. Biellen (Frantzia) egingo dira, 2015eko urrian, eta dagoeneko bi unibertsitateetako 80 hautagaiak aukeratu dira.

5.3.5. Doktoregoko ikasketa ofizialak arautzen dituen 99/2011 Errege Dekretuari jarraiki egiaztatutako doktorego programa berrien gestio administratiboa ezartzea.

- 2014/2015 ikasturtean, funtzional espezifiko bat jarri da martxan GAUREn, eta horren bidez 99/2011 EDk araututako doktorego programa berriak kudeatu daitezke, aplikazioan.

5.4. NAZIOARTEKO DOKTOREGO TESIAK

5.4.1. Master eta doktorego tituluetan gure unibertsitatearen eta atzerriko unibertsitateen arteko lankidetzaz bultzatzea.

- Master eta doktorego ikasketen 10 titulu antolatu ditugu elkarlanean atzerriko unibertsitateekin.

5.4.2. Master eta doktorego programak nazioartera zabaltzeko ekimenak bultzatzea, eskaintza osoa edo haren zati bat hizkuntza ez ofizialetan ematearen aldeko apustua eginez.

- Bederatzi master osorik ingelesez eman dira, eta beste 5 masterretan edukiaren % 50 edo gehiago eman da ingelesez. Horrez gain, doktorego programetan doktorego tesiak ingelesez egitea bultzatzen ari dira, baita beste hizkuntza batzuetan ere, eta bultzada hori ingelesez defendatutako tesien eta nazioarteko tesien igoeran hauteman dezakegu.
- UPV/EHUk Erasmus Mundusek onartutako bi nazioarteko master ematen ditu, eta horietako baten koordinatzailea da.
- 2014/2015 ikasturtean, masterretan matrikulatutako 3.029 ikasleen artetik, 568 (% 19) atzerritarrak dira, eta honela banatzen dira, jatorriaren arabera: Latinoamerika 341 (% 59,93), Europa 102 (% 17,93), Ipar Amerika 49 (% 8,61), Asia 39 (% 6,85) eta Australia 3 (% 0,53).
- 2014/2015 ikasturtean matrikulatutako 3.760 doktoregaien artean, 764 (% 20,31) atzerritarrak dira (%50,67 emakumeak eta % 49,33 gizonezkoak), eta honela banatzen dira, jatorriaren arabera: Latinoamerika 473 (%61,91; %59,17 emakumeak eta % 64,72 gizonezkoak), Europa 196 (% 25,65; %30,49 emakumeak eta % 20,69% gizonezkoak), Asia 48 (% 6,28; %50,46 emakumeak eta % 49,54 gizonezkoak), Afrika 26 (% 3,40; %27 emakumeak eta %73 gizonezkoak) eta Ipar Amerika 21 (% 2,75; %38 emakumeak eta %62 gizonezkoak).

5.4.3. Nazioarteko doktorego tesiak eta tutorekidetzan egindakoak bultzatzea.

- 2014. urtean, 479 doktore tesi defendatu dira (%56,58 emakumeak eta %43,42 gizonezkoak), eta, horien artean, 429, 2014-2015 ikasturtean (%55,24 emakumeak eta %44,76 gizonezkoak). Ikasturte horretan defendatutako 429 tesien artean, 42 (% 18,3) izan dira nazioartekoak (%60,11 emakumeak eta % 39,89 gizonezkoak). 429 tesi horietatik, 204 ingelesez egin dira (aurreko ikasturtearen aldi berean baino 47 gehiago: %59,22 emakumeak eta %40,78 gizonezkoak), eta 46, euskaraz (%56,52 emakumeak eta %43,48 gizonezkoak). 2014/2015 ikasturtean, tutorekidetzan egindako 7 tesi defendatu dira. Gaur egun, 98 doktoregai ari dira beren tesi proiektua garatzen, tutorekidetza erregimenean (%59 emakumeak eta % 41 gizonezkoak).

5.4.4. Euskaraz egin eta nazioarteko aipamena duten doktorego tesiak bultzatzea.

- Ikasturte honetan defendatutako nazioarteko 183 tesien artean, 18 dira nazioarteko aipamena jaso duten euskarazko tesiak; aurreko ikasturtean aldi berean defendatutakoak baino 6 gehiago.

5.4.5. Doktoregoen Latinoamerikako Sareko masterretan matrikulatuta dauden Latinoamerikako ikasleek doktorego tesien defentsa egin dezaten sustatzea.

- Azken bi ikasturteetan, nabarmen egin du gora Doktoregoko Ikasketen Latinoamerikako Sarean defendatu diren tesien kopuruak. 2014/15 ikasturtean, 16 doktore tesi defendatu dira, sare horren barruan.

6. PROGRAMA. UNIBERTSITATE IKERTZAILEA

6.1. IKERKETAREN ARLOKO JARDUERAK ETA LANKIDETZAN EGINDAKO IKERKETA

6.1.1. Babesa ematea ikertaldee eta laguntzea deialdi lehiakorretan baliabideak eskuratzen, zabalkunderako baliabide teknikoak hobetuz eta laguntza emanda ikertzaileei.

- Estatuko eta erkidegoetako deialdiak: webgunean, estatutako eta erkidegoetako hainbat erakunderen 64 deialdi argitaratu ditugu (bakoitzaren puntu nagusien laburpen bat barne). Era berean, deialdi horiei dagozkien 1.098 eskaera kudeatu ditugu.
- Nazioarteko deialdiak: 7PM ekimenari dagozkion 187 eskaera kudeatu ditugu. Emandako proiektuei dagokienez, 7PMren 11 proiektu berri kudeatu eta administratu ditugu, eta Europako hainbat esparru programaren deialdiei lotutako beste 14 proiektu. Era berean, 2014/15 ikasturtean oraindik martxan zeuden 7PMren 38 proiektu kudeatzen jarraitu dugu.
- Nazioarteko I+G Bulegoaren urteko jardueren txostenean, egindako ekintza guztiek zehazten dira:
<http://www.ehu.eus/documents/2458339/2828436/INFORME+2014>
- Ikerketako Zerbitzu Nagusiak (SGIker):
 - Guztira, arreta eskaini diegu UPV/EHUko 280 ikertzaile eta ikertzaile nagusiri (barne erabiltzaileak, %40 emakumeak eta %60 gizonezkoak) eta 169 enpresari eta partikularri (kanpo erabiltzaileak).
 - 2.096 zerbitzu eman ditugu barruan, eta 522, kanpoan.
 - 2014an, SGIker zerbitzuak zuzenean aipatzen zituzten 256 artikulua zientifiko eman ziren argitara; 2005. urteaz geroztik, 1.831 artikulua guztira.
 - 407 ikerketa proiektu lagundu ditugu: horien artetik, 11k Europako finantzaketa jasotzen dute; 97k, estatuko finantzaketa; 266k, eskualde mailakoa; eta 33k, finantzaketa pribatua.
- SGIker zerbitzuen 2014ko Jardueren Txostenak eginiko jarduera guztiak biltzen ditu:
<http://www.ehu.eus/documents/2458249/2633035/2014+CAS+Memoria+SGIker.pdf>
- 83. artikulua kargura, 884 kontratu egin ditugu.

6.1.2. SGIker unitateetako ikastaroak egokitzea, ikerketa gutxiko arloetara.

- Honako tailer hauek egin dira:
 - "Txosten tekniko bat idazteko modua", 2014ko urrian, 13 parte hartzaile (%77 emakumeak, %23 gizonezkoak).
 - "Akreditazioak, Seiurtekoak eta Ebaluazio Irizpideak", Nautika eta Itsasontzi-makineria Goi Eskola Teknikoa, 2015eko urtarrila, 28 parte hartzaile (%39 emakumeak eta %61 gizonezkoak).
 - "Ikerketaren hastapenak", Bilboko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea, 2015eko otsailean, 21 parte hartzaile (%48 emakumeak eta %52 gizonezkoak), eta Bizkaiko Campusean (4 saio), 2015eko uztailean, 9 parte hartzaile (%66 emakumeak eta %33 gizonezkoak).

6.1.3. Ikerketa proiektuetako lider berriak bultzatzea, belaunaldi aldaketa bermatzeko.

- UPV/EHUko aurrekontuaren bidez 40 urte edo gutxiago dituzten ikertzaileen nagusiek zuzendutako 32 ikerketa proiektu berri finantzatu dira (%56,25 emakumeak).
- Prestakuntza bidean dauden ikertzaileak kontratatzeke 2015eko deialdian, esperientzia pilotu gisa, doktorego tesien zuzendaritzan gazte ikertzaileen parte hartzea bultzatu dugu; horretarako, puntu gehiago eman dira, zuzendarietako batek 1998-2008 aldian doktoregoa lortu izanaren baldintza betetzen bazuen.

6.1.4. Prestakuntza ematea prestakuntza bidean dauden ikertzaileen eta doktore gazteen lehiakortasuna hobetzeko.

- 2014. urtean, 18 prestakuntza ikastaro eskaini eta eman ditugu, eta 154 pertsonak parte hartu dute (%44 emakumeak eta %29 gizonezkoak); horien artetik, 71 prestakuntza bidean dauden ikertzaileak dira.
- Ikerketa Zerbitzu Orokorretako 15 unitatek laguntza pertsonala eta teknikoa eman dute. Guztira, prestakuntzako eta ikerkuntzako 28 jarduera egin dira, UPV/EHUren 13 masterretan eta unibertsitate arteko 2 masterretan.
- 2015. urtean, 24 ikastaro berri eskaini ditugu. Horien artean, bi jarduera dira nabarmenezkoak, Geokronologia eta Geokimika Isotopikoaren arloan eta aztarnen laginak eta datazioak aztertzeke erabilitako tekniken arloan.

6.1.5. Eskaintza zientifiko-teknologikoa zabaltzea SGiker unitateetan.

Izena	Zerbitzua
Arina handitzea	Kalkulu zientifikoa
Belaunaldi berriko sekuentziazte plataforma (NGS)	Sekuentziazioa eta Genotipo Analisia.
Soinugailua	Sekuentziazioa eta Genotipo Analisia.
MALDIrako espraigailu automatikoa	Bizkaiko AZN
Cleaner plasma	Mikroskopia elektronikoa
ICP-MS espektrofotometroa	Geokronologia eta Geokimika Isotopikoa
Klima kudeatzeko eta kontrolatzeko sistema	Fitotona eta Berotegia
Tomografiako neurrietarako ekipoa	Polimeroen mikroskopia

6.1.6. Lankidetzak bultzatzea informazioa, prestakuntza eta metodologiak trukatzeko irakaskuntzaren arloko ekoizpen zientifikoaren eta ikerketako ekoizpenaren inguruko datuak lortu, tratatu eta aztertzeke xedez; batez ere, G9 taldeko unibertsitateen artean.

- Estrategia bat zehaztu dugu Ikerketako Zerbitzu Nagusien azpiegiturak partekatzeko, G9ren testuinguruan.
- Unibertsitate horien zerbitzu nagusien artean tarifa murriztu bat adostu dugu, eta G9ren zerbitzuen katalogoan argitaratu da.
- Zaragozako Unibertsitatearen azpiegiturak bisitatu ditugu (G9ren esparruan ere), haien funtzionamendua eta kudeaketa eredua ezagutzeko.

6.1.7. Emakumeen lidergoa eta parte hartzea bultzatzea, ikerketaren arloan.

- UPV/EHUko ikerketa proiektuen 2015eko deialdian, bazterkeria positiboko faktore bat txertatu dugu, eta horren arabera bi puntu gehitzen zaizkie emakumezko INak dituzten eskaerei.
- 2014. urtean, SGIker zerbitzuek 111 emakumezko INren ikerketa jarduera bultzatu dute (IN guztien % 40). 2013an, 105 izan ziren (% 39).

6.2. IKERKETA NAZIOARTERA ZABALTZEA

6.2.1. Ikerketaren arloko lankidetzak bultzatzea, Europar Batasunetik kanpoko herrialdeekin.

- Lankidetzako hiru ikerketa proiektu sinatu ditugu, Europatik kanpoko estatuen erakundeekin.
- Horrez gain, hainbat herrialdeetako 18 erakunderekin lankidetzak hitzarmenak eta elkar aditzeko memorandumak sinatu ditugu.
- Estatu Batuetako Nekazaritza Sailak diruz lagundu du ikerketa proiektu bat.
- Harremanetan jarraitu dugu Estatu Batuetako Weill Cornell Medical College-rekin, proteomikaren arloan lankidetzan aritzeko.
- Egonaldiak:
 - Geokronologia eta Geokimika Isotopikoa zerbitzuaren teknikari bat Tokioko (Japonia) National Institute of Polar Research (NIPR) institutuan egon da, Training and Instructions on Processing and Analysis izeneko ekimenaren barruan.
 - Bizkaiko Analisisien Zerbitzu Nagusiko teknikari bat Ekuadorko Unibertsitate Katolikoan (PUCESE) egon da, garapenerako unibertsitate lankidetzako proiektu baten barruan.
- Modu osagarrian, SGIker zerbitzuek laguntza eman diete bost erakunderi Estatu Batuetan, Australian, Kanadan eta Txilen (horien artetik, Australiako eta Estatu Batuetako bi unibertsitate daude).
- Lankidetzan jardun dugu Kanadako eta Hego Koreako nazioarteko ikerketa zentroekin, telebista sistema berri bat garatzeko. Sistema aurre-hautatua izan da, Ipar Amerikako telebista estandar berriaren teknologia gisa.

6.2.2. HORIZONTE 2020 programan baliabide gehiago lortzeko laguntza ematea.

- 2014. urtean, UPV/EHUko Nazioarteko I+G Bulegoak laguntza eman die UPV/EHUko ikertzaileei, H2020 programaren deialdietara 130 eskaera aurkezteko (%33,8 emakume Ikerlari Nagusiak). Horien artean, 18 proiektuk lortu dute finantzaketa (%11 emakumeak).
- Nazioarteko proiektuetan eta, batez ere, Batasunaren Esparru Programetan parte hartzea sustatzeko 51 laguntza eman ditugu (%33,3 emakumeak).
- Etengabeko ahalegina egin dugu Europako finantzaketari buruzko UPV/EHUren informazio webgunea eguneratzeko eta hobetzeko –<http://www.ehu.es/europeanprojects>–. Informazioa jarri dugu irekita dauden H2020 deialdiei buruz, Europako ekimenei buruz, jardunaldi eta info-days ekimenari buruz, mintegiei buruz, baita Nazioarteko I+G Bulegoak antolatutako ikastaroei buruz ere. Era berean, H2020ren eta UPV/EHUko Nazioarteko I+G Bulegoaren publizitate

materiala diseinatu dugu (flyer-ak gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez), esparru programa eta bulegoa ezagutzera emateko nazioarteko balizko bazkideen eta gure ikertzaileen artean.

- UPV/EHUko Nazioarteko I+G bulegoak MINECOren diru laguntza bat lortu du, "Europako Sareak eta Rudeatzaileak" deialdiaren bidez, bere funtzionamendua hobetzeko eta H2020 programan UPV/EHUko ikertzaileen parte hartzeko aukerak areagotzeko.
- Euskal erakundeekin (Tecnalia, Tekniker, Ikerbasque, Problight, BERC) lortutako akordioek Horizon2020 programaren lankidetzako lau proiektu berritan batera parte hartzeko aukera eman digute.

6.2.3. Prestakuntza ematea irakasle eta ikertzaileei eta AZPkoei, H2020 programan baliabideak lortzeko trebezia hobetzeko.

- UPV/EHUko Nazioarteko I+G Bulegoak kanpo aholkulariekin antolatutako prestakuntza ekintzen artean, honako hauek nabarmentzen ditugu:
 - "European Research Council" tailerra, Halbert Research-ek emana (2014ko urria eta 2015eko apirila).
 - ERC mintegia, Verónica Beneitezek –Proof of Concept ERCko koordinatzailea, Europako Batzordea–, Esther Rodriguezek –ERC laguntzen NCP– eta Angel Rubiok –ERC grantee– emana (2015eko ekaina).
- UPV/EHUko Nazioarteko I+G Bulegoko langileek bi ikastaro eman zituzten irakasle eta ikertzaileentzat.
- Marie S. Curie Actions – Ikertzaile gazteen ibilbidea garatzeko aukerak (2015eko ekaina).
- ERASMUS+ (2015eko ekaina).
- Prestakuntzako bi ikastaro eman dira, Marie Curie deialdietan irakasle eta ikertzaile hautagarrien parte hartzea sustatzeko (2015eko maiatza, %32,5 emakumeak eta 2014ko urria, %63,15 emakumeak), eta European Research Council-en ikastaro bat. Guztira, 71 ikertzailek (%42,25 emakumeak) hartu dute parte. Ikastaro bakoitzaren ondoren, talde txikitik "mentoring" saioak egiteko aukera eskaini zuten. Saio horietan, 16 ikertzailek parte hartu zuten (%31,25 emakumeak).
- Nazioarteko I+G Bulegoak emandako laguntzaren baitan, Marie Curie banakako ekintzei dagokienez, ikertzaileei aukera eman zaie beren proposamenak kanpo aholkularitza batek aztertzeko, hobekuntzak sartze aldera. 2014an, 7 proposamen bidali ziren aztertzerako, eta, horien artean, 2 onartu zituzten; 2015ean, berriz, 10 aztertu ziren, baina deialdien erabakia eman gabe dago oraindik.
- UPV/EHUko Nazioarteko I+G Bulegoa aurkeztu genuen, "STAFF TRAINING WEEK focused on Internationalisation" ekimenean (2015eko ekaina).
- UPV/EHUko Nazioarteko I+G Bulegoko langileek 12 topaketa, jardunaldi, hitzaldi eta infodayetan parte hartu dute.

6.3. IKERKETAKO EMAITZAK TRANSFERITZEA

6.3.1. UPV/EHUko ikertzaileen eta inguru sozioekonomikoaren arteko lankidetzaren indartzea.

- 35 lankidetzaren hitzarmen izenpetu ditugu, ingurune sozioekonomikoko erakundeekin.

- Lankidetzan jardun dugu Eusko Jaurlaritzaren Kontsumo eta Osasun Sailarekin eta Segurtasun Sailarekin, legez kanpoko substantzia gehigarrien gaineko testen laginei buruzko txosten eta azterketen gainean prestakuntza emateko, analisiak egiteko eta aholkularitza emateko. Lankidetzan aritu gara ere Krispiñako Ur Araztegiarekin, hondakin uren kutsatzaileak analizatzeko.
- Bizkaiko Analisisien Zerbitzu Nagusiak Analisi Elemental Organikoaren interkonparazio ariketaren ebaluazioa egiteko jardunaldi bat antolatu du, eta 36 pertsonak hartu dute parte (%58 emakumeak, %42 gizonezkoak) Superkonputazioko workshop bat ere antolatu dute, eta kanpoko erakundeetako 15 ordezkari, UPV/EHUko 19 ikertzaile (%16 emakumeak, %84 gizonezkoak) eta 14 ikasle joan dira (%7 emakumeak, %93 gizonezkoak).
- Zabalduz programan prestatzen ari diren ikertzaileei jarraipena egiteko jardunaldi bat egin da, eta ingurune sozioekonomikoaren hainbat arlotako 20 enpresako, 8 elkarteko eta 7 zentro teknologikoko ordezkariak parte hartu dute, baita goi mailako erakunde ordezkariak ere.
- Unibertsitatea-Gizartea deialdiko 16 proiektu eman dira.
- Konfiantza Sortzea programaren barruan, 9 enpresak planteatutako erronkak jaso ditugu. Erronkak UPV/EHUko ikertzaileei eman zaizkie, enpresekin batera horiek lortzen saia daitezen.

6.3.2. Ekintzailatza programak bultzatzea, baita oinarri teknologikoko enpresak sortzea ere.

- Aztertzen ari garen aldian (2014-2015) 17 enpresa sortu dira (Arabian 2, Bizkaian 7 eta Gipuzkoan 8).
- Mintegien kudeaketa bi kontzeptu nagusitan islatzen da:

Kultura ekintzailea,

Araba: Laskaray eraikinean (Gasteizko Campusa) egindako Enplegu Foroaren barruan, ekintzailatzari lotutako hainbat jarduera antolatu zituzten. Besteak beste, Aukerator izenekoa (ekintzaileak modu ludikoan identifikatzen dituen standa), sentsibilizazio jardunaldiak, lehenengo "Coworking eta Coworkers" jardunaldia, eta Inizia Sariak. Guztira, 260 pertsona joan ziren.

Gipuzkoa: foroak, tailerrak, mintegiak, lankidetzak masterretan, eta sariak antolatu dira, eta horrez gain enpresen sorrerari eta kudeaketari buruzko ohiko prestakuntza espezifikoa eman zaie ekintzaileei. Era berean, proposamen bat diseinatu dute, diagnostiko teknologikoak martxan jartzeko, GFaren eta BicBerrilan-en lankidetzaz. Aintzat hartutako ekitaldietara 320 pertsona joan ziren guztira.

Bizkaia: Bizkaiko campusean honako jarduera hauek egin dira: Mintegiak (Hasten Ikasten, Ikasi Ekiten, Ikasberri BBAA), lehiaketak (Ekinduz, E-EKIN, Think Big), Aukerator (ekintzaileak modu ludikoan identifikatzen dituen standa, Zientziaren Astean ere egin zena), BIME (Bizkaia International Music Experience), Prestik Azoka, Coworking espazioak (Zitek Coffee). Horrez gain, ekintzaileek ekintzaileentzako hainbat hitzaldi eman dituzte. Aipatutako jardueretara 2.853 pertsona joan ziren (horien artatik, 1.400 Aukerator standean, Zientziaren eta Teknogiaren Astean).

Enpresa proiektuak

Araba: Inizia Sariaren bidez, 13 proiektu identifikatu zituzten, eta Agudezia programan, berriz, 12 proiektu aurkeztu zituzten, eta, horien artetik, hiru inkubazio fasera pasatu, eta 2 enpresa sortu dira.

Gipuzkoa: 18 negozio ideia identifikatu zituzten, eta horien artetik 15 proiektu berri sortu ziren (guztiak Entreprenari programaren barruan). Gero, proiektu

horien artean, 8 inkubazio fasera pasatu ziren, eta 8 enpresa sortu dira.

Bizkaia: Ekinduz eta E-Ekin lehiaketetan banaka parte hartzen da, eta, hurrenez hurren, 319 eta 291 pertsonak parte hartu dute. Think Big lehiaketara 17 proiektu aurkeztu ziren. Proiektuen inkubatzea indartu egin zen, Ekintzailetza Gela eta Zitek Coffeerekin coworkinga egitean. Zazpi enpresa sortu ziren.

6.3.3. Jarduera zientifiko-teknologikoari buruzko prestakuntza diseinatzea, eta inguru sozioekonomikoan ezartzea.

- SGIker zerbitzuek prestakuntza ikastaro bat eman zuten, kanpo erakundeentzat kartara diseinatu zena. Guztira, 7 parte hartzaile (%71 emakumeak, %29 gizonezkoak) izan ziren, kromatografia bidezko analisi kimikoaren arloan.
- Unibertsitatekoak ez diren 11 pertsonak (%82 emakumeak, %18 gizonezkoak) parte hartu dute SGIker zerbitzuek antolatutako 4 prestakuntza ikastarotan.
- Jardunaldi bat egin zen, ikerketaren emaitzak erregistratzeko sistemetan aditua den pertsona batekin. Jardunaldian, ikerketaren emaitzak gordetzeko eta horiek espiritu akademikoarekin uztartzeko gizartean dauden jarduera berriak aztertu zituzten. Jardunaldira 67 ikertzaile eta kudeatzaile joan ziren.
- "EHU One to One" topaketa multisektoriala: Networking ekimen honetan, enpresek banakako bilerak egin zituzten UPV/EHUko hainbat ikertaldetako ikertzaileekin, eta haien ezagutza partekatzeko aukera izan zuten. Guztira, 37 enpresak eta 47 ikertalde eman zuten izena, eta 92 ikerketa lerro eman zituzten ezagutzera.

6.4. DOKTOREEN BALORAZIOA ETA GARRANTZIA GIZARTEAN

6.4.1. Doktorego tesiei zabalkunde handiagoa ematea.

- Zientziometria Unitateak emandako tailerretan, doktorego tesiak Open Access bidez zabaltzeari lotutako edukiak eman dira.

6.4.2. Doktoregoa egin ondoren nazioarteko zentroetan egonaldiak egiteko programak diseinatzea.

- Doktorego ondoko ikertzaileak atzerrian espezializatu daitezen, programa bat diseinatu, eta Eusko Jaurlaritzari proposatu zitzaion, 12 hilabeteko egonaldiak egiteko Vanguard Initiative-n (Smart Specialisation. The future of the industry in Europe) lerrotutako zentroetan, Euskadi ekimen horren barruan baitago.

6.4.3. Programa bat garatzea gaitasun indibidualak garatzeko, bai zientziaren eta teknologiaren arlokoak, bai nazioartean erreferente diren erakundeen gestioaren arlokoak ere, horren bidez doktoreak inguru sozioekonomikoan sartzeko bidea errazteko.

- Proiektu pilotu bat diseinatu dugu, ezagutza ingurune sozioekonomikoan txertatzeko, eta Eusko Jaurlaritzari proposatu zaio. Proiektu horren bidez, UPV/EHUko 10 doktore berriren ibilbide profesionala bideratu nahi da, eta horretarako urtebeteko egonaldiak proposatzen dira, nazioartean erreferente diren zentroetan, harrerako euskal enpresentzat gakoak diren ildo estrategikoen gainean ikertzeko.

6.5. IKERKETAREN KALITATEA

6.5.1. EBren "HR EXCELLENCE IN RESEARCH" kalitate zigilua lortzeko prozesua bultzatzea.

- 2014an, Ikertzailearen Europako Gutuna sinatu, eta Ikertzaileak Kontratatzeko Portaera Kodearekin bat egin genuen, Europako Batzordeak emandako "HR Excellence in Research" (Bikaintasuna Giza Baliabideen Ikerketetan) kalitate zigilua lortzeko lehen pauso gisa.

6.5.2. Ikerketako Zerbitzu Nagusien kalitatea egiaztatzeko prozesua bultzatzea.

- Ebaluazio positiboa jaso du berriro.
 - Analisirako tekniken akreditazioa, ISO 17025 arauan, Analisisien Zerbitzu Nagusian.
 - Kalitate ziurtagiria, ISO 9001 Arauaren arabera, Araba eta Bizkaiko Analisi Kimikorako Unitateetan, Bizkaiko RMN eta Gipuzkoako RMN Unitateetan, Polimeroen Karakterizazio Zerbitzuan, RAMAN-LASPEA Zerbitzu Orokorrean, eta X Izpien Zerbitzuan: XPS Unitatea, baita SGiker zerbitzuen etengabeko prestakuntza ikastaroena ere.
- ISO 17025 kalitatea kudeatzeko sistema ezarri da, eta analisi genetikoko tekniken egiaztapena eskatzeko beharrezkoa den barne auditoretza egin da, Sekuentziazio eta Genotipo Analisisien Zerbitzuan.
- AENOREk emandako ISO 9001 ziurtagiriaren irismenean bi SGiker unitate sartu dira: Bizkaiko animaliategia eta X izpiak: Molekulak eta Materialak.

6.5.3. Ikerketaren gestioa hobetzea: prozesuen araberrako gestiorako proiektu pilotua garatzea, aplikazio informatiko berria ezartzea, eta gestiorako eskuliburua osatzea.

- Kudeaketa orokorreko tresna bat diseinatu da, SGiker zerbitzuentzat. Modulua, baliabide propioekin garatu dena, eskaerak egiteko da, eta probatze fasean dago, Mikroskopia Elektronikoko eta Materialen Mikroanalisisiko Zerbitzuan.

6.6. ZIENTZIAREN ETA IKERKETAREN ZABALKUNDEA

6.6.1. Ikerketaren eta berrikuntzaren arloko jardueren zabalkundea bultzatzea, gizarteko komunikabideetan.

- Guztira, 139 prentsa ohar bidali dira, ikerketa proiektuei buruzko albisteak emateko.
- Ikerketako Zerbitzu Nagusien azpiegitura zientifikoei buruzko 4 albiste argitaratu dira: 3 prentsa idatzian eta on-line eman dira, eta bat, telebistan.
- Argazki Zientifikoaren VI. Lehiaketa egin da; 29 ikertzailek (%52 emakumeak, %48 gizonezkoak), parte hartu dute, eta, guztira, 46 argazki aurkeztu dituzte.
- Multimediako Teknologien arloko NABSHOW azokan parte hartu dugu (AEB), eta teknologia sortu berri onenaren 2015eko NAB Technology Innovation Award saria jaso.
- Frantziako Agentzia Nazionalaren (CNES) 2014ko Teknologia Transferentziaren Ohorezko Laukian UPV/EHU sartu da (ikerketa jarduera baliarazteko 12 ekintza

onenak jasotzen ditu, testuinguru espazialean), AMCAD Engineering enpresarekin batera STAN Tool tresnaren garapenerako egindako lankidetzaren harira.

6.6.2. Zientziaren eta Teknologiaren Astea.

- UPV/EHUko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Asteak iraun duen bost egunetan, Euskadiko 117 ikastetxeetako 6.000 ikasle inguruk parte hartu dute, eta 1.163 pertsonak parte hartu dute aldez aurretik izena ematea eskatzen zuten tailerretan eta txangoetan.

Edizio honetan, UPV/EHUko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Asteak eskaintza hau egin du: 39 stand (17 Bizkaian, 11 Donostian eta 11 Gasteizen), 20 tailer (8 Bizkaian, 5 Donostian eta 7 Gasteizen), 16 txango (5 Bizkaian, 5 Donostian eta 6 Gasteizen), eta, horrez gain, bi erakusketa, bi lehiaketa eta lau ikuskizun zientifiko.

Aurtengo edizioan, nabarmendu behar dugu "Zientzia Kluba" izeneko ekimen berria egin zela. Ekimenaren xedea bakarrizketa zientifiko laburrak ematea zen, umorearen ikuspegitik. Zortzi irakaslek lagundu zuten, eta hiru aurkezpen egin zituzten, hiru hiriburuetan. Donostian egindako lehen saiora 70 pertsona joan ziren, Gasteizko saiora, 90 pertsona, eta Bizkaia Aretoan egindako azken saiora, 290 pertsona.

6.6.3. Eleaniztasuna indartzea zientziaren zabalkundean.

- Gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez argitaratu dira Argazki Zientifikoaren Lehiaketaren web dokumentazioa eta iragarkiak, prestakuntza ikastaroen katalogoa eta SGIker zerbitzuak aurkezteko triptikoa, baita bestelako inprimaki eta eskaerak ere. Era berean, aipatutako hiru hizkuntzetan argitaratu dira Nazioarteko I+G Bulegoaren webgunea, Europako deialdiei buruzko albisteak eta bulego horretan egindako publizitate inprimakiak (flyers, enarak).

6.6.4. Indartzea euskaraz egiten den zabalkunde zientifikoa.

- Zientzia eta teknologia zabaltzeko Teknopolis telebista saioan parte hartu dugu, eta laguntza eman diegu.

6.7. ETIKA IKERKETAN

6.7.1. Ikerketa eta irakaskuntza jardueren etikari buruzko oinarritzko prestakuntza ematea, MOOC ikastaroen bidez, UPV/EHUUn ikertzen hasiko direnei.

- UPV/EHUren MOOC ikastaroa: "Etika, unibertsitate ikerketan", MiriadaX sarean funtzionatzen hasi zen 2015eko apirilean. 963 pertsonak eman dute izena, eta, horien artean, 360k amaitu dute (%16,85 emakumeak, %15,8 gizonezkoak, %67,35 datu gabe).

7. PROGRAMA. JAKINTZA TRANSFERITZEA GIZARTEAREN ONURARAKO

7.1. Nazioarteko Bikaintasun Campusa eta RIS3 estrategia

7.1.1. Lankidetza sendotzea inguruko eragileekin, nagusiki Euskampus NBC Proiektuari lotutako erakundeekin, eta ekimenak garatzea elkarlanean.

- Dagozkien Nazioarteko Bikaintasun Campusa garatzeari begira, UPV/EHUK eta Bordeleko Unibertsitateak Euskampus-Idex Bordeaux Euroeskualdeetako I. Sinposioa antolatuzuten, 2014ko azaroan. Sinposioaren helburu abiunibertsitateen arteko lankidetza indartzea zen, Euskadi-Akitania Euroeskualdearen jakintzaren triangelua egituratzaile izan daitezkeen proiektuak eta ekintzak dituzten eragileekin batera.
- Lehengo lankidetza hitzarmenak berritu, eta berriak sinatu ditugu Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko hainbat eragilerekin.

7.1.2. I+G+B elkargoen garapena babestu eta bultzatzen duten erakundeek sustatutako programa eta ekintzetan parte hartzea.

- Hitzarmen eratzaile bat sinatu dugu, Fabrikazio Aeronautika Aurreratuaren Zentroa (FAAZ) martxan jartzeko. UPV/EHU da Zentroa sortzeko erreferentziako erakunde zientifiko-teknologikoa, eta horrekin batera daude: bazkide industrial sortzaileak (ITP, Danobat, WEC Velatia, Grupo Alfa, GMTK, Ibarmia, Mesima, Metalúrgica Marina, Sikulan, LAIP, Sariki, ONA-EDM, Sandvik y Reni Shaw) inbertsio produktiboetarako finantzaketa ematen duten bazkide instituzionalak (Eusko Jaurlaritza, SPRIren bidez, eta Bizkaiko Foru Aldundia) eta Bizkaiko Teknologia Parkea. Horrez gain, erakunde laguntzaileak dira HEGAN Aeronautika klusterra eta makina erremintako AFM elkarteak.
- UPV/EHUK bazkide gisa parte hartzen du EIT Knowledge and Innovation Community (KIC) Raw Materials-en, Europako Teknologia Institutuak 2014ko abenduan onartu zuena.

7.2. ELKARTZEAK ETA LOTURAK EKOIZPEN ETA GIZARTE SAREAREKIN

7.2.1. UPV/EHUren presentzia bultzatzea Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarean.

- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarea arautzeko Dekretu berria prestatzeko prozesuan parte hartu dugu.

7.2.2. Beste erakunde batzuekin lankidetzan, ikerketarako eta transferentziarako egitura eta guneak sortzeko ekimenak bultzatzea.

- Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren mendeko Carlos III.a Osasun Institutuak emandako Osasun Ikerketa Institutuaren akreditazio ofiziala lortu du BioCrucesek. UPV/EHU BioCrucesen bazkide sortzailea da, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailarekin, Osakidetzaren eta Bioef-ekin batera.

7.3. UNIBERTSITATE HEDAKUNTZA

7.3.1. ehuGUNE sustatzea, unibertsitatearen, erakundeen eta gizarte zibilaren arteko topaleku legea.

- EhuGUNEren webgunea sortu dugu: www.ehu.eus/ehugune.
- Lankidetzan jardun dugu Eusko Ikaskuntzarekin eta UPV/EHUko Zientzia Politikoko Sailarekin, bai Novia Salcedo Fundazioak sustatutako BYEF Bilbao Youth Employment Forum nazioarteko biltzarrean (Bilbo, 2014 azaroa), bai Donostian egindako "Euskal Demokrazia eta Erabakitze Eskubidea" izeneko biltzarrean (2014ko abendua).
- Egindako 20 jardunaldietan, 35 hizlarik parte hartu dute (%37 emakumeak eta %63 gizonezkoak), eta 750 pertsona joan dira (%25 emakumeak, %75 gizonezkoak). Horrez gain, 6 ekitaldi antolatu dira Krisia eta Euskal Herria 2050 jardueraren esparruan, eta kolaboratzaile gisa parte hartu dute, besteak beste, Norvegiako Enbaxadak eta Eurohiriaren Gazte Foroak, Iparraldeko eta Hegoaldeko gazteen arteko elkar ezagutza sustatzeko.
- ehuGUNEk ordezkaritza aktiboa du Eusko Jaurlaritzak sustatuko Bake eta Bizikidetzaren Planaren Batzordean. Lankidetzan jardun du ere Eusko Legebiltzarreko Bake eta Bizikidetzaren Zuzendaritzarekin, presoei buruzko lege txosten bat prestatzeko.
- Lankidetzan ari gara Ehunberriarekin (Donostia 2016), bakeari buruzko biltzar bat antolatzeko.

7.3.2. UPV/EHUren irudia sendotzea

- UPV/EHUko sare sozialen erabilera eta estilo gidaliburua sortu eta argitaratu dugu.
- UPV/EHUren sustapen materiala eguneratu eta argitaratu dugu: inprimakiak eta erakundearen bideoa euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez.

7.3.3. Kultura ekintzak antolatzeke unibertsitateak bere inguruko kultura erakunde eta eragileekin daukan lankidetzaren zabaltzea.

- Bigarren urtez jarraian, uda ikastaroen kudeaketa aldatzeko lana egin dugu, UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioan hiru campusak sartzeari begira. Zuzendaritza taldearen organigrama aldatu egin da.
- Arabako Campusa:
 - Bultzada eman diogu Gasteizko kultura eragileekiko lankidetzari, eta, horren emaitza gisa, hainbat hitzarmen izenpetu ditugu (Vital Kutxaren Gizarte Ekintza, Artium Museoa, Mendizabala Institutua eta Gasteizko Udalaren mendeko Montehermoso Kulturunea eta Film Office, Cortada Jaialdian lankidetzan aritzeko).
 - Lankidetzaren hitzarmenak egin ditugu hiriko kultura eragileekin –hala nola Eusko Ikaskuntza eta Antso Jakituna Fundazioa–, Arabako gizartean oihartzuna izango duten kultura jarduerak antolatzeke.
- Bizkaiko Campusa:
 - Lankidetzak eta trukeak egin ditugu hiriko hainbat kultura eragileekin, Bizkaia Aretoaren ikusgarritasuna areagotzeko, UPV/EHUk Bilbo duen erakusleiho gisa.

- @kulturbasque marka garatu dugu, webgunea, bloga eta sare sozialak biltzen dituen ardatz gisa, eta 2.000 jarraitzaile baino gehiago lortu ditugu.
- Zenbait jarduera lankidetzan egin ditugu beste zentro eta erakunde batzuekin, sinergieie etekina ateratzeko. Horren erakusle dugu arrakasta handia izan duen Pablo Iglesias Fundazioaren (Madril) "Centelles" argazki erakusteka. Bigarren urtez jarraian, lankidetzan aritu gara Bilbao Art Districtekin (Bilboko Udala) eta hainbat kultura eragilerekin, hala nola: BAT, Zaramari, Pink Gorilas, Mapfre Fundazioa, CFC Bilbao, Caóstica Zine Jaialdia, BibaoArte Fundazioa, ZAWP, ZINEBI, Arrebato Cinema, Frantziako Institutua eta Aiko Taldea.
- Gipuzkoako Campusean:
 - Lankidetzan jardun dugu, besteak beste: Casa Italiarekin, italiera ikastaroak emateko campusean; Kresala Zineklubarekin, campuseko ikasleek zineklubaren jardueretan parte hartzeko eta programazioak haiekin batera antolatzeko; eta, beste gizarte erakunde batzuekin, hala nola Emaus Fundazioarekin, campusean ikastaroak eta tailerrak antolatzeko.
 - Donostiako Orfeoia-UPV/EHU sariaren XIV. edizioa egin dugu.
 - UPV/EHUren Antzerki Gelak Iruñean antzeztu zuen, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Antzerki Taldearekin dagoen truke esparruaren baitan.
 - Hainbat jarduera egiteko, lankidetzan jardun dugu Donostia Kulturarekin, Bi Art Elkartearekin eta hainbat GKEekin (DYA, odol emaileak, bidezko merkataritza, Gipuzkoako boluntarioen elkarteak, etab.).

7.3.4. UPV/EHUren gunetan kultura ekintzak sustatu eta programatzea.

- Arabako Campusa:
 - Kultura zabalkunderako ekintza multzo bat antolatzea, KULTUR CAMPUS programaren barnean. Programaren barruan, 23 kultura jarduera antolatu dira guztira, hainbat arte diziplinari lotutakoak, hain zuzen: musika, antzerkia eta zinema.
 - CORTADA JAIALDIAREN XVIII. edizioa antolatu da. Dagoneko film laburren erreferente bihurtu da estatuan, Euskal Herrian eta unibertsitatean, eta ikasturte honetan, Espainiako Zinema Akademiak Akademiaren 30 Goya Sarien aurre-hautatzaile izateko onartu du.
- Bizkaiko Campusa:
 - Askotariko 40 kultura jarduera egin dira, hala nola hitzaldiak, erakusketak, kontzertuak, zinema emanaldiak, dantza aurkezpenak eta mintegiak. Ekitaldi horietan, Arte Ederren Fakultateko, Zuzenbide Fakultateko eta Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko irakasleek eta ikasleek hartu dute parte.
 - Bizkaia Aretoan astelehenero egindako dantza tradizionalen tailerraren bi txandak finkatu dira. 2014-15eko kanpaina arrakastatsua izan da, eta TRADEGIN (Tradiziozko Dantza Garaikidea eginez) Uda Ikastaroarekin eman zaio amaiera.
- Gipuzkoako Campusa:
 - Unibertsitate hedakuntzako 21 ikastaro antolatu, eta egin ditugu (kultura gunea).
 - Zine klub saioa astero egin da, Zuzenbide Fakultateko Gradu Aretoan. Zine forum saioak frantsesez eman dira. UPV/EHUren Antzerki Gelaren emanaldia. "Campus Bizia" eguna ospatu dugu, IKD Gazteren testuinguruan.
 - Donostiako Enpresa Ikasketen Eskolarekin lankidetzan jardun dugu, haren ehungarren urteurrena ospatzeko eta Aitor Ruiz de Eguinoren "natura eta

gizadia irudikatzen dituzte ere misteriotsu, poetiko eta industrialean” izeneko erakusketa antolatzeko, Karlos Santa Maria Zentroaren Andrestegi aretoan.

- Lankidetzan jardun dugu, Bakartxo Aniz Aldasoro argazkilariaren “Natura Bizia” argazki erakusketa antolatzeko.
- Arkitektura Goi Eskola Teknikoak antolatutako Aste Kulturalean lagundu dugu.

7.3.5. Unibertsitateko kideen artean kirol jarduerak bultzatzea.

- Unibertsitatetik kanpoko kirol jardueretan parte hartzea:
 - Gasteizen egindako Zabalki Euskal Pilotako Nazioarteko Unibertsitate Txapelketan parte hartu genuen, eta UPV/EHUko taldea nagusitu zen.
 - Unibertsitate arteko Espainiako Txapelketan, 16 kirolean iritsi ginen azken fasera. Amaierako faseak eta tartekoak kontuan hartuta, 211 kirolarik hartu zuten parte (113 emakume eta 98 gizon), eta 11 domina lortu zituzten (emakumeek 7, gizonek 3 eta 1 talde mistoan).
 - EAEko kirol jardueretan parte hartzea: Euskadiko Unibertsitate Kirol Txapelketa (UPV/EHU, Deustu eta Mondragon unibertsitateen topaketa). UPV/EHUko 63 emakumek eta 89 gizonek parte hartu zuten, 14 kirolean.
- Ikastaro eskaintza zabala, erantzun handiarekin:
 - Arabako Campusa: 320 pertsona.
 - Bizkaiko Campusa: 1.955 pertsona.
 - Gipuzkoako Campusa: 901 pertsona.
- Arabako Campusa:
 - 29 kirol modalitate eskaini dira (bakarkakoak eta taldekakoak), eta 1.129 gizonek eta 263 emakumek eman dute izena.
 - Lankidetzak akordioak egin dira, 20 gimnasio eta kirol elkarte pribaturekin. 262 ikaslek eman dute izena (99 gizon eta 163 emakume).
- Bizkaiko Campusa:
 - Neguko txapelketan, lehiaketak antolatu dira 23 kirol modalitatetan, eta udaberrikoan, berriz, 22 modalitatetan. Guztira, 593 emakumek eta 2.902 gizonek parte hartu dute.
 - Txapelketa mistoak bultzatu ditugu 3x3 saskibaloian, areto futbolean eta padolean.
 - Jarraipena eman zaio kirol arloko hainbat enpresa eta erakunderekin ezarritako lankidetzari, unibertsitateko kideei abantailen berri emanez (Bilbao Kirolak kirol txartela, eta Nautika eta Itsasontzi-makineria Goi Eskola Teknikoko ikasleei Santurtziko KUIren instalazioak erabiltzeko aukera).
 - Jakintzaren Bidearen VIII. ibilaldia egin da, UPV/EHUko I. Mendi Duatloia, UPV/EHUko IX. Lasterketa Mistoa, XII. Tipi Tapa martxa, eta Zamudioko Aisiategi lasterketaren X. edizioa.
 - 12 jarduera egin dira naturan, 892 parte-hartzaileekin (376 emakume eta 516 gizon).
- Gipuzkoako Campusa:
 - Neguko eta udaberriko kirol txapelketak, 25 kirol modalitatetan (bakarkakoak nahiz taldekakoak), gizonezkoen eta emakumezkoen kategorietan eta kategorio mistoan. Guztira, 209 taldek eta 3.009 ikaslek parte hartu dute: gizonezkoen kategorian, 2.367k eta emakumezkoetan, 642k.

- Unibertsitateko Espainiako Txapelketan parte hartu dugu. Nabarmentzekoak dira emakumezkoen 7ko errugbian lortutako 4. postua, eta emakumeek 7ko futbolean lortutako 5.a.
- II. Estropada Akademikoan lehiatu gara, Deustuko, Nafarroako eta Paueko eta Aturriko Herrialdeetako unibertsitateekin, eta lehen postua lortu dugu Sprint modalitateko emakumezkoen kategorian.
- Udaberriko XIII. Lasterketa antolatu dugu, eta 1.674 lasterkarik hartu dute parte.
- Unibertsitateko Aerobithon, Fitness Day eta Cyclon Day antolatu ditugu. 101 kirolarik parte hartu dute guztira (89 emakume eta 12 gizon).
- Kirol Federatuaren arloan, Gipuzkoako Campusa bigarren urtez jarraian lehiatu da Emakumezkoen Saskibalo Ligan (estatuko kategoria gorena). Liga bikaina egin du, eta bederatzigarren postua lortu du liga erregularrean. Saskibaloiko Espainiako Elkarrekin Emakumezkoen Ligako entrenatzaile onena izendatu du Azu Muguruza, Pablo Lasorekin batera (Real Madrid).
- Udaberrian, 14 kirol eta abentura jarduera egin ziren aire zabalean, 367 parte-hartzaileekin (123 emakume eta 244 gizon). Aipatzekoa da surfean eta mendi txangoetan izandako parte hartze handia.
- Instalazioen arloa: Kirol txartelak Eibarko Kiroletako Udal Patronatuarekin: 130ek eman dute izena (91 mutil eta 39 neska). Unibertsitateko kideek hilabeteetan, batez beste, 217 orduz erabili dituzte Gipuzkoako Campusaren kirol instalazioak.

8. PROGRAMA. EUSKARAREN ETA EUSKAL KULTURAREN UNIBERTSITATEA

8.1. EUSKARA, GRADUONDOKO ESKAINTZAN

8.1.1. Beste deialdi bat egitea tesiak euskaraz egiteko.

- Beste deialdi bat egin dugu, eta 14 kontratazio berri egin dira (%57 emakumeak eta %43 gizonezkoak.).

8.1.2. Ikasleak bultzatzea matrikulatzera euskara hutsez eskainiko diren master ofizialetan, bai eta euskararen presentzia nabarmena bermatzen dutenetan ere, eta master guztietan euskarazko irakasgaiak txertatzen joatea.

- Master ofizialen konpromisoazko dokumentuan, honako hiru adierazle hauek txertatu ditugu, master ofizialetan euskarazko irakasgaiak txertatzea sustatzeko: euskarazko nahitaezko kreditu kopurua, euskarazko hautazko kreditu kopurua, euskaraz egin beharreko Master Amaierako Lanen (MAL) kopurua.
- Zuzenbide Fakultatearekin eta Abokatuen Elkargoekin egin dugu lan, 2015-2016 ikasturtean ikasleek Abokatutzako Masterra oso-osorik euskaraz egiteko aukera izan dezaten.

8.1.3. Euskarazko graduondoko berezko tituluen antolakuntza laguntzea, gero euskarazko master bihurtzeko.

- Jarraipena eman zaie UEUrekin ditugun akordioei. Graduondoko berezko titulu berri bat eskaini dugu euskaraz ("Agroekologia: trantsiziorako gure bideak lantzen").

8.1.4. Bultzada ematea euskaraz eginiko Master Amaierako Lanei.

- Master ofizialen konpromisoazko dokumentuan, masterren ebaluaziorako adierazle gisa txertatu dugu euskaraz egin beharreko Master Amaierako Lanen (MAL) kopurua.

8.1.5. Euskarazko argitalpen akademikoen eskaintza handitzea.

- 7 irakaskuntza eskuliburu itzuli ditugu, eta inprimatutako 12 eskuliburu eta formatu elektronikoko 28 unibertsitate testu argitaratzea sustatu dugu. Aurretiaz argitaratutako obren berrargitalpen elektronikoa ere sustatu dugu.
- Inprimatutako 15 liburu eta hiru aldizkaritako 5 ale argitaratzen lagundu dugu. Hala, jardunbide ildo bat ireki dugu, doktore ikerketek tokia izan dezaten euskarazko aldizkari zientifikoetan.

8.2. EUSKARA, ZIENTZIAREN ETA KULTURAREN ALORREAN

8.2.1. Euskararen presentzia indartzea unibertsitatearen udako ikastaroen eskaintzetan.

- Euskararen presentzia indartu dugu diru laguntzen eta laguntzen bidez zein Udako Ikastaroak programan euskarazko ikastaroen publizitatea eginda.

8.2.2. Gure unibertsitatearen euskarazko argitalpenen presentzia sustatzea euskara erabiltzen duten gainerako unibertsitateetan.

- Unibertsitate ikastegietan testuak banatu ditugu.
- Euskarazko argitalpen guztiak sistematikoki bidali ditugu euskara erabiltzen duten gainerako unibertsitateetara (Baionakora, Deustukora, Mondragonekora...).

8.2.3. Euskararen erabilera eta euskal kultura sustatzea helburu duten ekimenak antolatzen laguntzea.

- "Euskararen Eguna" ospatu dugu hiru campusetan. Gaztezulo aldiakariaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, "Ika-Mizka Saioa" egin dugu Gipuzkoako Campusean; zehazki, Erizaintzako Unibertsitate Eskolan. Bestalde, hainbat hitzaldi antolatu ditugu. Nabarmentzekoa dugu Arkitektura Goi Eskolan Miguel Garaik emandakoa, bere erakusketa antologikoaren inaugurazioa zela-eta; bai eta Oier Araolazak emandakoa ere: "Mozorrotzea ez da disfrazatzea: inauteriak, eske errondak, aurpegi baltzituak, arketipoak, joaldunak eta neguko festetako beste kalentura batzuk". Bizkaian, berriz, pianoa eta bertsoa uztatzen dituen emanaldi bat antolatu dugu, X. Lizasoren eta A. Egañaren eskutik, bai eta Leioako Ostalaritza Eskolan egindako bazkari bat, bakarrizketak, euskarazko leloen lehiaketak eta 'Gure Sor Lekua' filmaren emanaldia ere. Arabako campusean, bestalde, "EHUskArabanda" egin dugu, hainbat jarduera biltzen dituen ekimena: kontzertuak, bertsolaritza tailerrak, herri bazkaria eta bideo maratona.
- 2015eko apirilaren 28an izan zen Athletic-Real derbia dela tarteko, V. Bertsoderbia antolatu genuen Campuseko Areto Nagusian. 400etik gora pertsona bildu ziren bertan.

8.3. EUSKARA INSTITUTUAREN JARDUERAK INDARTZEA

8.3.1. Euskara Institutuarekin elkarlanean aritzea Egungo Euskararen Hiztegia eta Sareko Euskal Gramatika garatzeko eta euskarazko tesiak ezagutarazteko.

- Institutuari babesa eman diogu, aurreko urteetako ildoei jarraituta.

8.4. IRAKASLE ETA IKERTZAILEEN NAHIZ AZPKO LANGILEEN HIZKUNTZ GAITASUNA HOBETZEA

8.4.1. Ikastaroak eskaintzea HAE Erekin elkarlanean.

- 2014/2015 ikasturtean, bi ikastaro deialdi egin ditugu HAE Erekin elkarlanean.

8.4.2. AZPko langileek euskara ikas dezaten liberazioen programa eskaintzen jarraitzea.

- HAE Ek eta UPV/EHUk izenpetutako hitzarmenaren bitartez, 2014/2015 ikasturtean:
 - 12 pertsona osorik liberatu dira urria-otsaila artean (%33 emakumeak eta %67 gizonezkoak), eta 12 pertsona, otsaila-ekaina artean (%33 emakumeak eta %67 gizonezkoak),.
 - 92 pertsonak baimena lortu dute lan ordutegian 2 orduko ikastaroak egiteko (%68 emakumeak eta %32 gizonezkoak).

- 33 pertsona (%64 emakumeak eta %36 gizonezkoak) lanorduz kanpo aritu dira (horietatik 6 autoikaskuntza modalitatean).
- 19 pertsonak udako ikastaro trinkoa egin dute.

8.4.3. Euskara hobetzeko ikastaroen deialdia egitea.

- Euskara Zerbitzuak 5 ikastaro birtual eta aurrez aurreko 5 ikastaro antolatu ditu. Ikastaro horiek, batik bat, irakasle eta ikertzaileei eskaintzen zaizkie, baina AZPko langileei ere aukera ematen zaie. On-line ikastaroak hauexek izan dira: Unibertsitateko testuak zuzentzen: ohiko zuzenketak; Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak (EIMA); Euskaltzaindiaren araugintza berria. Interneteko hizkuntza baliabideak eta Euskara Zerbitzuarenak; Testu akademikoak itzultzen trebatzeko lantegia.
- AZPko langileei espresuki eskainitako bi ikastaro izan ditugu Leioan, Bilbon, Donostian eta Gasteizen: "Oinarrizko Mintzapraktika" eta "Administrazioan komunikazio gaitasuna lantzeko ikastaroa".
- Euskara hobetzeko 3 ikastaro eskaini ditugu hiru campusetan: Araban: Euskarazko oinarrizko maila duten pertsonentzako ikastaro bat ("Ahozko jarduna hobetzen") eta testuak sortzeko ikastaro bat ("LaTeX dokumentu zientifiko eta teknikoen edizioa"). Azken ikastaro hori Bizkaiko Campusean ere eman dugu, mintzamina lantzeko "Euskara akademikoa lantzeko mintzapraktika egitasmoa" ikastaroarekin batera. Gipuzkoan, azkenik, "Ahozko hizkuntza testuinguru akademikoan" ikastaroa antolatu dugu.
- EIZIerekin elkarlanean, 8 orduko ikastaro bat antolatu dugu AZPko langileentzat, hiru campusetan, helburutzat izan duena administrazio testu laburrak sortzeko trebetasunak lantzea.
- Gainera, Terminologia Sareak Ehunduz egitasmoarekin jarraitu dugu (TSE, 11 tailer), eta bultzada eman zaie plataforma digitalei.

8.5. IRAKASLE ETA IKERTZAILE ELEBIDUNEN PLAZEN KOPURUA HANDITZEA

8.5.1. Beste deialdi bat egitea irakasle eta ikertzaileak euskarazko eskoletara joan daitezen edo/eta eskolak euskaraz ere emateko gaitasuna lor dezaten.

- 2014/2015 ikasturtean, euskarazko ikastaroak diruz laguntzeko deialdi bat egin dugu.

8.5.2. Irakasle eta Ikertzaileen arloko Errektoreordetzarekin modu koordinatuan aritzea, plaza berrien eskaerak aztertzeke.

- Bilerak egin ditugu plazen deialdiak egin aurretik.

8.6. ELEANIZTASUNA

8.6.1. Irakasle eta ikertzaileentzako eta AZPko langileentzako hizkuntza ikastaroen eskaintza bultzatzea eta indartzea.

- Irakasleei eskainitako hainbat ikastaro egin ditugu, ingeles hizkuntza eta trebetasunak hobetzeko, nola unibertsitateko testuinguruan, hala irakaskuntza tresna gisa:

- Donostian, Bilbon, Gasteizen eta Leioan, "Improving English-Medium Communication and Instruction Skills at Level B2+" izeneko 30 orduko 4 ikastaro antolatu ditugu, eta orotara, 45 pertsonak parte hartu dute. Leioan eta Gasteizen, berriz, "Improving English-Medium Communication and Instruction Skills at Level C1" izeneko 25 orduko 2 ikastaro trinko antolatu ditugu, eta orotara, 26 pertsonak parte hartu dute.
- Era berean, "Improving Pronunciation for University Teaching and Other Activities" izeneko 10 orduko 2 ikastaro antolatu ditugu, B2 maila duten irakasleentzat. Zehazki, Bilbon eta Donostian egin ditugu, eta Gasteizen eta Leioan egindako aurreko ikasturteko eskaintzaren osagarriak izan dira. Orotara, 30 irakaslek parte hartu dute.
- Era berean, "Improving Writing Skills for University Teachers and Researchers" izeneko ikastaroa eskaini diegu ingelesezko dokumentu idatzietan (izan ikerketa arloarekin lotutakoak, izan unibertsitatearekin zerikusia duten bestelako jardueri buruzkoak) ekoizpen lan eraginkorragoa lortu nahi duten irakasle eta ikertzaileei. Leioan egin dugu, eta 16 pertsonak parte hartu dute.
- Campuseko errektoreordetzetatik egindako eskaintzak hizpide hartuta, hauek izan dira datuak:
 - Arabako Campusean jarraian zehaztuko ditugun ikastaroak eta mintegiak antolatu ditugu, ikasleentzat, irakasleentzat zein AZPko langileentzat. B1/B2 mailako "Ingeles orokorrari buruzko mintegiaren" 3 talde osatu ditugu, B2 mailako "Idatzizko ulermenari eta adierazpenari buruzko mintegiaren" bi talde, "Ahozko ulermen eta adierazpenari buruzko mintegiaren" 3 talde, eta, bidenabar, "Ingelesaren autoikaskuntzarako web tresnak" ikastaroa antolatu dugu. Gainera, unibertsitateko kide guztiei 28 toki eskaintzen dizkiegu Hizkuntzen Autoikaskuntzarako Multimedia Laborategian, hizkuntza modernoak modu interaktiboan ikasteko programa aurreratuenekin eta tutore baten laguntza pedagogiko eta linguistikoarekin. Azkenik, bigarren lauhilekoan, C1 mailako TOPTULTE ingeles azterketa prestatzeko ikastaro trinko bat eskaini dugu, soil-soilik irakasle eta ikertzaileentzat.
 - Bizkaiko Campusean, ingeles, frantses, aleman, italiera eta txinera ikastaroen eskaintzarekin jarraitu dugu, Campuseko Errektoreordetzak kudeatuta, honako hauen lankidetzarekin, hurrenez hurren: Hizkuntza Laborategia, Frantziako Institutua, Goethe Institutua, Casaitalia eta Lu Xun Txinera Ikasketen Zentroa. Bereziki ikasleei eskainitako ikastaroak Bizkaiko hainbat ikastegitan eskaini ditugu, eta orotara, 614 pertsonak parte hartu dute: 436k ingeles ikastaroetan; 88k, aleman ikastaroetan; 2k, frantses ikastaroetan; eta 88k, italiera ikastaroetan. Horrekin batera, Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzak, Hizkuntza Laborategiarekin batera, "Ingeles tekniko orokorrari buruzko ikastaro" bat eta "Ahozko elkarrizketa eta adierazpenari" buruzko beste ikastaro bat antolatu ditu, irakasle eta ikertzaileentzat (bakoitza 25 ordukoa). Orotara, 50 pertsonak parte hartu dute.
 - Gipuzkoako Campusean, Campuseko Errektoreordetzak, Hizkuntza Laborategiarekin batera, ingelesa, frantsesa eta alemana ikasteko hiru programa antolatu ditu, irakasle eta ikertzaileentzat zein AZPko langileentzat. Lehenengo lauhilekoan, orotara, 65 pertsonak parte hartu dute; bigarrenean, berriz, 42 pertsonak. Gainera, "C1 mailako azterketak prestatzeko ikastarorako" bi talde eta "B2 mailako azterketak prestatzeko ikastarorako" beste bi talde eratu ditugu. Orotara, 86 pertsonak parte hartu dute ikastaroetan. Era berean, aleman, frantses eta italieraren hastapenetarako ikastaroak eskaintzen jarraitu dugu; hurrenez hurren, Goethe Institutuarekin, Frantziako Campusarekin eta Casaitaliarekin lankidetzan. Bestalde, ingelesezko jarduera osagarriak antolatu ditugu: bi astean behineko irakurketa elkarte bat, hizkuntza laguntzarako saioak, fonologia saioak eta idazketa saioak; bai eta txango soziokulturalak asteburuetarako eta blog bat ere. Asteburuetak elkartean 200 pertsonak eman dute izena; blogean, berriz, 600etik gora sartu dira. Azkenik, Gipuzkoako

Campusean, C1 mailako "TOPTULTE ingeles azterketa prestatzeko ikastaro trinko" bat antolatu dugu irakasle eta ikertzaileentzat (15 pertsonak parte hartu dute), bai eta "Nazioarteko Biltzarretarako ingeles ikastaro" bat ere, aurrez aurreko 40 eskola ordukoa. Ikastaro horretan 12 pertsonak parte hartu dute.

- Nabarmentzekoa da, halaber, CERTIUNI Ziurtapen Plataforma abian jarrita, Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzak aukera eman diela ikasleei BULATS azterketa egiteko: online egin beharreko test bat, Europako Unibertsitate Eremu berrian gehien eskatutako gaitasun batzuk egiaztatzen dituen ziurtagiria lortzeko balio duena.

8.6.2. Ofizialak ez diren hizkuntzetan eskainitako irakasgai blokeen kopurua handitzea.

- Eleaniztasun Planean ofizialak ez diren hizkuntzetan eskainitako irakasgaiak ugaltu egin ditugu: 256tik 288ra. Horretaz gainera, 6 modulu edo bloke sortu ditugu, eta 2015-2016 ikasturteari begira neurriak hartu ditugu, ikastegiei eskainitako graduatan irakasgaien blokeak sortzeari dagokionez koherenteagoa den eskaintza proposatzeko.

8.6.3. Ofizialak ez diren hizkuntzetan irakasgaiak eskaintzeko gaituta dauden irakasle eta ikertzaileen kopurua handitzea.

- 2013-2014 ikasturtean 954 irakasle gaitu zeuden (%48 emakumeak eta %52 gizonezkoak); 2014-2015 ikasturtean, berriz, 1.006 (%47 emakumeak eta %53 gizonezkoak).

9. PROGRAMA. MUNDURA IREKITAKO UNIBERTSITATEA

9.1. PERTSONA TALENTUDUNAK ERAKARTZEA ETA HAIEN LEIALTASUNA LORTZEA

9.1.1. Ikasle eta ikertzaile bisitarien harrerarako zerbitzua hobetzea bisitaldiaren aurretik eta ondoren jarraipena eginez, gure unibertsitatearekiko loturak bizirik iraun dezan.

- 2014-2015 ikasturtean, 630 bisitariri egin diegu harrera hiru campusetan (%64 emakumeak eta %36 gizonezkoak): abuztu-irailean, 395 (%62,7 emakumeak eta %37,3 gizonezkoak), eta urtarrilean, 235 (%66 emakumeak eta %34 gizonezkoak). Harrera Bulegoek ingelesez egiten den informazio eskaera kontzentratzen dute, eta ezinbesteko errefortzu lana egiten dute ostatu zerbitzuentzat. Gainera, gaztelania eta euskara ikastaroei buruzko informazioa ematen diete nazioarteko bisitariari, bai eta haien eskura dauden campus zerbitzuei buruzko informazioa ere (kirol eta kultur jarduerak); bertako eskoletan ingelesezko elkarriketarako laguntzaile gisa aritzeko eskaerak izapidetzen dituzte; eta aholkuak ematen dizkiete campuseko gune publiko eta liburutegien erabilerari buruz.

9.1.2. Ikasle bisitariak hartzeko "Buddy" programa sendotzea.

- 2011z geroztik, nazioarteko bisitariari laguntzeko Buddy programa kudeatzen dugu, tresna hori ez duten ikastegientzat. 2014ko irailean, 210 ikaslek (%63 emakumeak eta %37 gizonezkoak) eman zuten izena programan; 2015eko urtarrilean, berriz, 277 ikaslek (%55 emakumeak eta %45 gizonezkoak). Beraz, 487 buddie guztira (%58 emakumeak eta %42 gizonezkoak); hots, gehikuntza nabarmena izan da aurreko ikasturteko kopuruari dagokionez (398, %60,8 emakumeak eta %39,2 gizonezkoak). Aipatzekoa da, halaber, irakasle zein ikertzaileak eta AZPko langileak hasi direla jada programa honetan izena ematen.

9.1.3. Harrera eta orientazio saioak antolatzea ikasle bisitariarentzat.

- Ikasturtearen hasieran, bisitariarentzako harrera ekitaldiak antolatzen ditugu campus bakoitzean. Maiatzean, aldiz, nazioarteko ikasleentzako agur ekitaldia egin ohi dugu; baina ikasturte honetan ezeztatu egin dugu, ezinbesteko arrazoiak direla tarteko. Nazioarteko bisitariak iristen diren denboraldietan (iraila-otsaila), berriz, ikustaldi gidatuak egiten ditugu hiru campusetan.

9.1.4. Atzerriko ikasleak erakartzeko deialdiak eta programak kudeatzea.

- 2014/2015 ikasturtean, UPV/EHUk 836 ikasle hartu ditu hainbat programaren baitan (%62 emakumeak eta %38 gizonezkoak): Erasmus (535, %61,2 emakumeak eta %38,8 gizonezkoak), Erasmus Mundus (35, %62,8 emakumeak eta %37,2 gizonezkoak), Latinoamerika (159, %57,8 emakumeak eta %42,2 gizonezkoak), Beste norako batzuk (46, %80,5 emakumeak eta %19,5 gizonezkoak) eta Mugarik gabeko Zientzia (61, %67,3 emakumeak eta %32,7 gizonezkoak).
- Era berean, "2014/2015 ikasturtean UPV/EHUko unibertsitate masterrak egiteko laguntzen deialdia" argitaratu dugu (ikus 5.1.7. puntua).
- Eta 2014/2015 ikasturtean, bi deialdi eginditugu UPV/EHUko doktorego ikasketetan matrikulatuta eta prestakuntza bidean dauden Latinoamerikako ikertzaileei UPV/EHUko egonaldietan laguntzeko. 8 laguntza eman ditugu lehenengo deialdian; bigarrenean, berriz, 10.

- Prestakuntza bidean dauden UPV/EHUko ikertzaileak atzerriko unibertsitateetan egonaldiak egin ditzaten laguntza deialdia egin dugu; bai eta prestakuntza bidean dauden atzerriko unibertsitateetako ikertzaileek UPV/EHUen egonaldiak egiteko ere, tutoretzakidetzan Doktore Tesiak egin ditzaten. Prestakuntza bidean dauden UPV/EHUko ikertzaileei 4 laguntza eman dizkiegu, atzerrian egonaldiak egin ditzaten: bat Lovainako (Belgika) Unibertsitate Katolikoan, beste bat Flinders Universityn (Adelaide, Australia) eta bi Bordeleko Unibertsitatean. Era berean, beste laguntza bat eman diogu Jiangsuko Soochow University (SUDA) unibertsitateetik (Txina) etorritako doktoregai bati.

9.1.5. Nazioarteko irakasleak, ikertzaileak eta AZPko langileak erakartzea, atzerriko unibertsitateetara doazen gure lankideei prestakuntza eskainiz, erakarpen lanak egin ditzaten.

- Prestakuntza saioak antolatu ditugu ERASMUS AZP-II mugikortasun programetan parte hartzen duten pertsonentzat, UPV/EHUren enbaxadore lanak egin eta sustapen, informazio eta erakunde material bakar bat erabil dezaten edozein tokitara joaten direla ere. 2014/2015 ikasturtean, UPV/EHUk 83 irakasle, ikertzaile eta AZPko langile hartu ditu, guztira, programa horren baitan (%56,6 emakumeak eta %43,4 gizonezkoak).
- 'Langileentzako Lehenengo Prestakuntza Astea' antolatu dugu (Staff Training Week-STW), ikasleen eta langileen nazioarteko mugikortasunari buruzko gaiak lantzeko. 21 unibertsitateko 22 ordezkari (%82 emakumeak eta %18 gizonezkoak) hartu dute parte jardunaldi horietan. Parte-hartzaileak, hain zuzen, Estatu Batuetatik eta Europako 10 unibertsitateetik etorri dira: Italiakotik, Erresuma Batukotik, Esloveniakotik, Errumaniakotik, Frantziakotik, Finlandiakotik, Portugalakotik, Alemaniakotik, Poloniakotik eta Azerbaijanekotik.

9.1.6. Atzerritarrentzako gaztelania eta euskara ikastaroak kudeatzea, baita lortutako maila egiaztatu nahi duten bisitariarentzako azterketak ere.

- Hiru campusetan, Gaztelania eta Espainiar Kulturari buruzko ikastaroak antolatu ditugu, bisitariarentzat, hiru mailatan: oinarrizkoa, ertaina eta goi mailakoa. Orotara, 430 ikaslek parte hartu dute ikastaro horietan (%64 emakumeak eta %36 gizonezkoak). Era berean, Euskara eta Euskal Kulturaren hastapeneko hiru ikastaro antolatu ditugu Arabako eta Gipuzkoako campusetan; 9 ikaslek parte hartu dute (%89 emakumeak eta %11 gizonezkoak).
- DELE azterketaren (Diploma de Español como Lengua Extranjera) deialdi bat kudeatu dugu, 2015eko apirilean, Europako esparru bateratura egokitutako mailetan (B1-etik C1-era). 12 ikaslek eman dute izena (%58 emakumeak eta %42 gizonezkoak).
- Era berean gaztelaniazko CERTIUNI (BULATS) azterketaren bi deialdi kudeatu ditugu, eta horietara 13 ikasle (%69 emakumeak eta %31 gizonezkoak) aurkeztu dira.
- Irakasleentzako bi ELE Prestakuntza Ikastaro (Español como Lengua Extranjera) antolatu eta egiaztatu ditugu, Cervantes Institutuarekin elkarlanean: "Cómo ser Profesor de ELE" (40 ikasle) (%70 emakumeak eta %30 gizonezkoak) eta "Desarrollo de competencias y revisión de enfoques para la enseñanza de ELE" (40 ikasle, %67,5 emakumeak eta %32,5 gizonezkoak).
- Etxepare Institutuarekin lankidetzan, bestalde, "Atzerriko unibertsitateetan eta goi mailako ikastegietan euskara irakasteko prestakuntza ikastaro bat" eman dugu, eta 23 pertsonak parte hartu dute (%69,5 emakumeak eta %30,5 gizonezkoak).

9.2. NAZIOARTEKO MUGIKORTASUNA ETA TRUKEA

9.2.1. Nazioarteko mugikortasun programak eta atzerrian egonaldiak egiteko programak zabaltzea eta kudeatzea graduako eta graduondoko ikasleentzat.

- 2014/2015 ikasturtean, UPV/EHUko graduako 1.352 ikasle (%56,6 emakumeak eta %43,4 gizonezkoak) atzerriko unibertsitateetan izan dira Erasmus (1.025, %54 emakumeak eta %46 gizonezkoak), Erasmus Mundus (3, %66,6 emakumeak eta %33,3 gizona), Latinoamerika (252, %65 emakumeak eta %35 gizonezkoak) eta Beste norako batzuk (72, %61 emakumeak eta %39 gizonezkoak) programen bitartez.
- Gainera, graduondoko beste 16 ikaslek (%37,5 emakumeak eta %62,5 gizonezkoak) egonaldi bat egin dute beste unibertsitateen batean.
- Hainbat unibertsitatek eskatutako hizkuntza egiaztagiria lortzen laguntzeko helburuarekin, CERTIUNiren bitartez, ingelesezko BULATS azterketa egitea kudeatu dugu, eta 103 ikasle aurkeztu dira (%63 emakumeak eta %37 gizonezkoak).

9.2.2. Atzerrian egonaldiak egiteko programak zabaltzea eta kudeatzea irakasle, ikertzaile eta AZPko langileentzat.

- Erasmus programaren barnean, II eta AZP kolektiboetako 84 pertsona (%57 emakumeak eta %43 gizonezkoak) EUEko unibertsitateetan izan dira. Gainera, Errektoreordetzaren mugikortasun deialdiaren bitartez, 14 pertsonak (%74 emakumeak eta %26 gizonezkoak) mugikortasun beka bat izan dute.

9.2.3. Latinoamerikako, Asiako, Europako, Estatu Batuetako, Australiako eta Kanadako unibertsitateekiko lankidetza sarea handitzea.

- Lankidetzarako 14 oinarritzko hitzarmen sinatu ditugu goi mailako hainbat unibertsitate eta erakunderekin. Toki hauetakoak dira, hain zuzen: Ipar Amerika (3), Latinoamerika (9) eta Asia (2).
- Eta mugikortasunerako 19 hitzarmen espezifiko sinatu ditugu toki hauetako unibertsitateekin: Latinoamerika (9), Ipar Amerika (6) eta Asia (4).

9.2.4. Atzerriko unibertsitateekin titulu bikoitzak ezartzeko joera handitzea.

- Masterreko titulu bikoitzerako lau hitzarmen onartu ditugu: bat Ecole Supérieure des Technologies Industrielles Avancées Unibertsitatearekin (Frantzia), bi Bordeleko Unibertsitatearekin (Frantzia), eta azkena, Tianjin University of Science And Technology Unibertsitatearekin (Txina).

9.2.5. Master eta doktoregoen Latinoamerikako sarea indartzea eta handitzea, eta sare horretako unibertsitateekin ditugun titulu bikoitzak sendotzea.

- 2014/2015 ikasturtean, Latinoamerikako 341 ikasle matrikulatu dira UPV/EHUko master ofizialetan, eta 473, doktorego programetan. Guztira, 2014/2015 ikasturtean, Latinoamerikako 814 ikasle matrikulatuta daude UPV/EHUko graduondoko ikasketan ofizialetan.
- Gaur egun, UPV/EHUk master eta doktorego ikasketak egiteko hitzarmenak izenpetuta ditu Latinoamerikako sareko 9 unibertsitateekin.
- Bestalde, Latinoamerikako unibertsitateekin partekatzen ditugun masterren bi titulu daude: batetik, "Filosofia, Zientzia eta Balioak Masterra", Mexikoko

Universidad Nacional Autónoamarekin; 27 ikasle matrikulatu dira, eta horietatik 10 latinoamerikarrak dira. Eta, bestetik: "Ingeniaritza Biomedikoko Masterra", Paraguaiko Universidad de Asunciónekin; 26 ikasle matrikulatu dira, eta horietatik 4 Latinoamerikako herrialderen batekoak dira.

- Doktoregoei dagokienez, 2014/2015 ikasturtean, 16 doktore tesi defendatu dira sareko programen barnean. 202 doktoregai daude matrikulatuta programa horietan.

9.2.6. Gure graduondoko prestakuntza eskaintza euskal diasporan zabaltzea.

- Graduondoko Ikasketen Plan Estrategikoak, 2014ko uztailaren 10eko Gobernu Kontseiluak onartutakoak, bere helburu estrategikoen artean dauka eskaintza hori euskal diasporan zabaltzea, diasporako ikasleak gure unibertsitatera erakartzeko xedez. 2015eko uztailan, Jaialdi 2015 jaian parte hartu dugu; alegia, bost urtean behin Boisen ospatzen den euskal diasporaren jaian. Bertan, erakusmahaiak partekatu dugu Boise State Universityrekin, eta UPV/EHUren graduondoko ikasketen eskaintza aurkeztu dugu.

9.3. NAZIOARTEKO SAREAK ETA BESTELAKO ITUNAK ETA LANKIDETZAK

9.3.1. Nazioarteko unibertsitate sareetako partaidetza sendotzea.

- Truke bat (gizon bat) egin dugu Estatu Batuetako CONAHEC sarearen bidez.
- Brasilgo Gobernuak finantzatzen duen Mugarik Gabeko Zientzia programan, UPV/EHU hautatua izan da herrialde horretako ikasleak hartzeko. Ondorioz, Brasilgo 61 ikaslek (%67 emakumeak eta %33 gizonezkoak) gure unibertsitatean ikasi dute.

9.3.2. Erasmus+ programaren 1. ekintzaren deialdietarako proposamenak aurkezteko modua erraztea.

- Webgunean, Europako deialdiei buruzko informazioa eguneratuta eduki dugu, eta interesatuta egon litezkeen pertsonen horiei buruzko informazioa bidali diegu. Bestalde, deialdiei buruzko informazio eskaera guztiei erantzun diegu.
- 2014-2015 ikasturtean, bost Erasmus Mundus mugikortasun programa kudeatu ditugu: a) BACKIS, Armenia, Azerbaijan, Ukraina eta Georgiarekin; b) EWENT, Ukraina eta Bielorrusiarekin; c) eASTANA, Tajikistan, Kirgizistan, Uzbekistan eta Kazakhstanekin; d) ACTIVE, Bielorrusia, Moldavia, Ukraina, Georgia eta Armeniarekin; eta e) PHANTER, Australia eta Zeelanda Berriarekin.

9.3.3. UPV/EHUK Erasmus+ programaren beste ekintza batzuetan parte har dezan bultzatzea.

- 12 Erasmus+ proiektuen aurkezpenak izapidetu ditugu, Jean Monnet eta Elkarte Estrategikoen ekintzenak.
- Jean Monnet ekintzaren 2 proiektu lortu ditugu, bai eta katedra bat, modulu bat eta Elkarte Estrategikoen ekintzaren 3 proiektu ere: bata lider gisa, eta beste 2 bazkide gisa.

9.4. EURO-ESKUALDEKO UNIBERTSITATEA

9.4.1. Akitaniako unibertsitateekin ezarritako lankidetza esparruan titulu bikoitzak bultzatzea.

- Paueko eta Aturriko Herrialdeetako Unibertsitatearekin titulu bikoitzeko bi hitzarmenen izapideak amaitu ditugu, Informatikako Gradurako eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradurako.

9.4.2. Euro-eskualdeko unibertsitateekin tutoretzakidetzan egindako tesiak sustatzea.

- 2014/2015 ikasturtean, 29 hitzarmen onartu ditugu tutoretzakidetzan doktore tesiak egiteko. Horietako 15 (% 51,72) Bordeleko Unibertsitatearekin eta Paueko eta Aturriko Herrialdeetako Unibertsitatearekin sinatu ditugu.

9.4.3. Akitania-Euskadi-Nafarroa sarean dugun presentzia eta parte-hartzea indartzea.

- Akitania-Euskadi-Nafarroa ingurunean zeharkako tailer bateratu bat egin dugu, sareko unibertsitateko kideei irekia: Praktikei eta Enpresei buruzko mugaz haraindiko tailerra (2014ko abendua – Bidarte).

10. PROGRAMA. UNIBERTSITATE KONPROMETITUA ETA ARDURATSUA

10.1. IRAUNKORTASUNERAKO, BERDINTASUNERAKO ETA GARAPENERAKO HEZKUNTZA

10.1.1. UPV/EHUren Emakumeen eta Gizonen arteko II. Berdintasun Plana onartzea eta aurreikusitako ekintzak aurrera eramatea.

- UPV/EHUko Emakumeen eta Gizonen arteko II. Berdintasun Planaren (2014-2017) diseinua amaitu dugu, 2014ko abenduaren 18ko UPV/EHUren Gobernu Kontseiluan aho batez onartutakoa. Planak bildutako 87 ekintzetatik 34 egikaritu ditugu eta 23 egikaritzen ari gara.
- Ikertzaileentzako 1. Idazketa Astea antolatu dugu Gipuzkoako Campusean (2015eko uztaila).

10.1.2. Berdintasun gaiekin lotuta AZPko langileen eta irakasle zein ikertzaileen trebakuntza eskaintza indartzea eta hobetzea.

- Berdintasunarekin lotutako hainbat ikastaro eman ditugu: 2, AZPko langileentzat, non 22 emakumek parte hartu baitute (% 86,4), eta 3, UIPP Ikastaroen eskaintzaren baitakoak, irakasle eta ikertzaileentzat, non 30 emakumek parte hartu baitute (% 66,6).

10.1.3. UPV/EHUren aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzeko zereginak sustatzea. 2012, 2013 eta 2014ko ekitaldietako I. Kapituluko gastuen likidazioaren analisia, sexuen araberako datuak bereizita.

- 2012, 2013 eta 2014ko ekitaldietako I. Kapituluko gastuen likidazioaren analisia egin dugu, sexuen araberako datuak bereizita.
- UPV/EHUren aurrekontu analisian genero ikuspegia txertatzeari buruzko bi txosten egiten hasi gara: bat, aurrekontuaren 1. kapituluko analisiari buruzkoa, eta beste bat, 2016ko aurrekontuen proiektuari buruzkoa, UPV/EHUko Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzaren sailik garrantzitsuenen analisia egingo duena.

10.1.4. Berdintasunerako Zuzendaritzaren web orria eguneratzea eta hobetzea.

- Web orria hobetu dugu, funtzionala izan dadin, nola kontsultarako, hala UPV/EHU barnean zein kanpoan gaiarekin lotuta gertatzen diren ekimenei eta albisteei buruzko informazioa emateko.

10.1.5. Parte-hartze prozesu baten bitartez, Iraunkortasun Memoria hobetzea, haren irismena hobetuz.

- Iraunkortasun Bulegotik sustatutako lan ildo nagusiak biltzen dituen Memoria bat argitaratu dugu webgunean. Era berean, lantaldeak egin ditugu, memoria eguneratzeko, memoria osatzeari begirako parte-hartze estrategia gisa.

- 10.1.6. Zerbitzu Ikaskuntza instituzionalizatzeko bidean aurrera egitea, iraunkortasunaren zerbitzura dagoen metodologia gisa.
- IKGIAP-EUEBen lantaldean modu aktiboan parte hartu dugu, eta ApSren instituzionalizazio prozesua gidatu dugu, IKGIAP-EUEBek 2015ean Leonen egindako bileran oinarritzko dokumentua onartu ostean.
 - ApSa aplikatzen duten irakasleen kopuruak gora egin du, bai eta ApSa ikasgelako metodologia gisa babesten duten ikastegien kopuruak ere.
 - ApS gaietan espezializatutako estatuko zein nazioarteko foro eta sareetan parte hartu dugu.
- 10.1.7. Iraunkortasun gaietan egindako lana ikusaraztea eta AZPko langileen, irakasleen zein ikertzaileen eta ikasleen arteko harremana eta gai horiei buruzko komunikazioa hobetzea.
- Gizarte Erantzukizunari buruzko webgunea eguneratu dugu, gure helburua baita plataforma erabilgarria izatea unibertsitateko kideekin egindako lan jardunaldietan sortutako eta aurkeztutako materialak hedatzeko.
 - Lantaldeak sortu ditugu, Gizarte Erantzukizunari buruzko webgunea eguneratzeko.
- 10.1.8. Unibertsitateko curriculumean elkartasun jardueren programa indartzea.
- 168 ikaslek lortu dituzte kredituak elkartasun jarduerak egiteagatik: % 30 gizonak ziren eta % 70 emakumeak.
 - Gizarte erakundeekin beste 12 hitzarmen sinatu ditugu, gisa horretako jarduerak egin ahal izateko; besteak beste, Bizkaiko Gurutze Gorriarekin.
 - Medikuntzako ikasleen boluntariora programa autokudeatua indartu dugu. Programa horrek Bilboko Irakasleen Eskolako ikasleentzako Lehen Laguntzei buruzko Prestakuntza Jardunaldi bat antolatu eta eman du, bigarren urtez jarraian.
 - I. Boluntariora Azoka antolatu dugu, Ikasleen Kontseiluaren eta Boluntariora Bulegoen laguntzarekin: Bizkaiko Bolunta eta Gipuzkoako Gizalde, hain justu. Unibertsitateko 3 campusetan 60tik gora gizarte erakundek parte hartu dute, eta gai horri buruzko hogeitailer, hitzaldi eta erakusketa egin ditugu, Bizkaiko, Gipuzkoako zein Arabako ikastegietan.
- 10.1.9. Unibertsitateko kideak berdintasunaren arloari buruz sentiberatzea.
- Sexu aniztasunari eta genero indarkeriari buruzko jardunaldi bat egin dugu, eta bertan, 87 pertsonak parte hartu dute (% 82,7 emakumeak ziren eta % 17,3 gizonezkoak).
 - Martxoaren 8ko jardunaldi instituzionala, azaroaren 25eko jarduerak eta Beldur Barik! 2014 kanpainarekiko lankidetzak indartu ditugu, unibertsitateko hiru kolektiboen parte-hartzearekin –AZPko kideak, irakasle zein ikertzaileak, eta ikasleak–.
 - UPV/EHUn emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko hitzaldiak eta jardunaldiak antolatze laguntzen deialdiak indartu ditugu: 4.175 parte-hartzaile izan dira, irakasle eta ikertzaileen, AZPko langileen eta ikasleen artean (% 53,87 emakumeak ziren).

- Doktoregoko ikasleek jardunaldietan, biltzarretan eta mintegietan parte hartzeko laguntzen deialdia indartu dugu, eta beka eman diegu doktoregoko 31 ikasleri (% 84 emakumeak ziren).
- Genero ikuspegia duten Master Amaierako Lanak egiteko laguntzen deialdia indartu dugu, eta beka eman diegu 27 ikasleri (% 89 emakumeak ziren).
- UPV/EHUko gradu amaierako lanetan genero ikuspegia txertatzeko Francisca de Aculodi Sariak, UPV/EHUko master amaierako lanetan genero ikuspegia txertatzeko Maria Goiri Saria eta azterlan feministei edo genero azterlanei buruzko tesirik onenari ematen zaion Micaela de Portilla Vitoria Saria indartu ditugu.

10.1.10. Curriculumaren iraunkortasuna

- UPV/EHUn Ingurumen Kalitaterako, Garapen Iraunkorrerako eta Arriskuen Prebentziorako (IKGIAP) EUEBen Batzorde Sektorialaren sei hilean behingo bilera egin dugu; zehazki, 2014ko urriaren 30ean eta 31n. Aldi berean, Batzorde Sektorialean parte hartzen duten unibertsitateetako Lantalde Teknikoen Jardunaldi bat antolatu dugu, Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzari buruzkoa.
- Curriculumaren Iraunkortasunari buruzko Mintegi bat ere eskaini diegu irakasle eta ikertzaileei, eta 60tik gora pertsonak eman dute izena (2015eko uztailean, Bilbon).
- Iraunkortasunaren arloko berrikuntzarako laguntzen deialdiaren bigarren edizioa argitaratu dugu (campusa, laborategi gisa). Hainbat gairi buruzko 11 proiektu finantzatu ditugu; esaterako, gizarte eta hezkuntzaren arloko erronkak, gizarte parte-hartzea, erosketa berdea, energia berriztagarriak, hondakinen kudeaketa edo energia eraginkortasuna hobetzeko estrategiak. Horietan guztietan, unibertsitateko kideek parte hartu dute. Uztailean, lan jardunaldi bat egin genuen, eta lantalde onuradun guztietako kideek parte hartu zuten; lortutako emaitzak aurkeztu zituzten.
- UE4SD (University Educator for Sustainable Development) proiektuan parte hartu dugu. Gloucestershireko Unibertsitateak gidatutako proiektua da, eta Europako 33 herrialdeetako 55 unibertsitatek parte hartzen dute. Proiektuaren baitan, UPV/EHUren Iraunkortasunaren arloko Berrikuntzarako Deialdia "Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzako Jardunbide Egokitza" jo dute.

10.2. INGURUMENAREKIKO ERRESPETUA ETA BALIABIDE NATURALEN ERABILERA ARDURATSUA

10.2.1. Ingurumenaren kudeaketa hobetzeko prozesuak mantentzea, campusekin eta ikastegiekin elkarlanean.

- Lortu dugu gure ikastegi guzti-guztiek iraunkortasunarekiko konpromisoa onartzea.
- Bizkaian eta Gipuzkoan bi ikastaro antolatu ditugu: "Hondakin Arriskutsuen Kudeaketa, UPV/EHUn: prozedura, sailkapena eta minimizazioa".

10.3. GARAPENERAKO LANKIDETZA

10.3.1. Garapenerako Hezkuntza instituzionaliza dadin bermatzea.

- Garapenerako Lankidetzako gradu amaierako praktika eta proiektuen programan 77 ikaslek eta 12 ikastegik parte hartu dute. Latinoamerikako, Afrikako eta Asiako 13 herrialdeetara joan dira.

- UIPPren bitartez, bi prestakuntza ikastaro eskaini ditugu, UPV/EHUko irakasleek garapenerako lankidetzaren arloan duten prestakuntza hobetzeko. Garapenerako Unibertsitate Lankidetza (GUL) curriculumean txertatzeko interesa duten irakasleei zuzenduak izan dira, eta bereziki, Garapenerako Lankidetzarako Proiektuetan oinarritutako Practicum eta GRAL Programaren baitan ikasleei tutoretza lana egiten dieten edo egiteko interesa duten irakasleei zuzenduak.
- UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Kontseiluko kideak berritu ditugu (2015eko ekaina).

10.3.2. Unibertsitateko kideen artean Garapenerako Unibertsitate Lankidetza sustatzea.

- Garapenerako Unibertsitate Lankidetzan oinarritutako proiektuetarako diru laguntzen deialdia argitaratu dugu, 30.000 €-ko hornidurarekin. Laguntza horiei esker, aurreko urteetan hasitako Garapenerako Unibertsitate Lankidetzako proiektu batekin jarraitzeko eta bi proiektu berri abian jartzeko aukera izan da.
- Gure campusetan hamahiru sentiberatze kanpaina babestu ditugu, eta bost jardunaldi antolatu. Bi ISF unibertsitate elkartearekin, Garapenerako Lankidetzarako Gradu Amaierako lanak sustatzeko; beste bi, nazioartekoak, Medikuntza Fakultatean eta Bilboko Irakasleen UEn; eta, azkenik, "Garapenerako Unibertsitate Lankidetzako Proiektuak aurkezteko I. Jardunaldia", UPV/EHUren Lankidetzarako Bulegotik finantzatzen ditugun Garapenerako Unibertsitate Lankidetzarako proiektuak ezagutarazteko helburua duena.

10.4. INGURUMENAREKIKO GIZARTE ETA KULTURA KONPROMISOA

10.4.1. II. Gizarteratze Plana garatzea eta ebaluatzea.

- 2013/2014 ikasturtean, programen adierazleen ebaluazioa egin dugu, eta hamaika konpromisoetatik zortzi bete ditugula ikusi dugu. 2012/2013 ikasturtearekin alderatuta, emaitzak pixka bat hobetu ditugula ikusi dugu; izan ere, ikasturte hartan 6 konpromiso bete genituen.

10.4.2. Ezgaitasunak dituzten ikasleekin lotutako jardunbide egokiei buruzko irakasle eta ikertzaileen prestakuntza eskaintza kudeatzea.

- Irakasle eta ikertzaileentzako prestakuntza saioak eta ikastaroak antolatu ditugu, Prestakuntza eta Sentiberatzea programaren baitan.

10.4.3. Ezgaitasunak dituzten pertsonen arretarako zerbitzuaren Zerbitzuen Karta zabaltzea.

- Zerbitzuen karta argitaratu dugu Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuaren web orrian.

10.4.4. Zerbitzuaren web orria eguneratzea eta hobetzea.

- Zerbitzuaren webgunea eguneratu dugu eta edukiak berregituratu ditugu, baita atal berriak txertatu ere.

10.4.5. Unibertsitatean Ezgaitasuna Babesteko Zerbitzuen Sarearen V. Topaketa antolatu dugu.

- Unibertsitatean Ezgaitasuna duten Pertsonak Babesteko Zerbitzuaren Estatuko Sarearen V. Topaketa antolatu dugu, EUEBeko Aniztasun eta Ezgaitasun Arloari dagokiona. Bertan, arloko 88 profesionalak parte hartu dute, eta Espainiako 42 unibertsitatek izan dute ordezkaritza (Donostian, 2014ko urrian).

10.5. LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA

10.5.1. Laneko segurtasun eta osasun gaietako protokoloak berrikustea eta eguneratzea.

- Campus arteko Segurtasun eta Osasun Batzordeak 2015eko ekainaren 15ean egindako bileran, lantalde bat eratu zen, UPV/EHUko Prebentzioa Kudeatzeko Sistemako prozedura guztiak berrikusteko eta egokitzeko xedez, prozedura horiek unibertsitateko eguneroko jardueran erabat txertatuta egon daitezen eta ahalik eta eraginkorrenak izan daitezen.
- Nolanahi ere den, hori eratu aurretik, eta hautemandako premiak aintzat hartuta, 2015eko apirilaren 15ean, Campus arteko Segurtasun eta Osasun Batzordeak gehiengoz onartu zuen larrialdien kudeaketarako prozeduraren V. eranskina aldatzea.

10.5.2. Arrisku psikosozialen analisitik eratorritako prebentzio jardueraren plangintza egitea.

- Arrisku psikosozialen ebaluazio prozesua amaitu ostean, eta helburu horrekin sortutako lantaldeek egindako proposamenak aintzat hartuta, UPV/EHUren Prebentzio Zerbitzuaren Memorian eta Plangintzan hainbat neurri bildu ditugu, jardunbide proposamen gisa.
- Memoria hori Campus arteko Segurtasun eta Osasun Batzordeari aurkeztu genion, 2015eko apirilaren 15ean egindako bileran.

10.5.3. Arrisku psikosozialen prebentzio eta jardunbide prozedura bat egitea.

- 2014ko ekainaren 9an, gehiengoz onartu zuten Campus arteko Segurtasun eta Osasun Batzordean lan arloko jazarpen salaketek irtenbidea bilatzeari buruzko erabakia, gerora, 2014ko uztailaren 10eko Gobernu Kontseiluan berretsi zutena.
- Erabaki horren xedapen gehigarriak adierazten du EHAAan argitaratu eta sei hilabeteko epean, arrisku psikosozialen prebentzio eta jardunbide prozedura bat egingo duela helburu horretarako izendatutako batzorde batek. Aurreikuspen hori gauzatzeko zain gaude oraindik, batzorde hori osatzearekin lotutako txosten juridiko bat egin arte.

10.5.4. Kontratazio agiriak eguneratzea.

- Agiriek batera doazen administrazio klausula partikularren aurkezpen guztiek laneko segurtasun eta osasun gaietan eskatutako baldintzak biltzen dituzte, nola zuzenean enpresa nagusiaren mendeak diren langileei dagokienez, hala azpikontratutako enpresetako langileei eta profesional autonomoei dagokienez.
- Gainera, baldintza horiek ez betetzea kontratua eteteko funtsezko arrazoi izango da, baldintza horrek Sektore Publikoko Kontratuen Legearen arabera dituen ondorio guztiekin.

11. PROGRAMA. UNIBERTSITATE ADEITSUA ETA HURBILEKOA

11.1. UNIBERTSITATEAREN GESTIO ARINA, GARDENA ETA ADEITSUA

11.1.1. Iragarki taula elektronikoen sistema berri bat garatzea.

- 2014/2015 ikasturtean, webgune korporatibotik edukiak kudeatzeko tresna berrirako aldaketa amaitu dugu, eta dagoeneko prest dugu iragarki taula elektrikoaren sistema berria, 2015/2016 ikasturtean abian jarriko duguna.

11.1.2. Irakasle eta ikertzaileek baliabide elektronikoak baliatuta baimenen izapideak egiteko prozedura abian jartzea.

- Irakasle eta ikertzaileentzako baimen prozedura 2014ko abenduan jarri genuen martxan. 2015eko uztailaren 31ra arte, 1.470 baimenen izapideak egin dira prozedura hori baliatuta.

11.1.3. Kalifikazioen aktak bitarteko elektronikoen bitartez egiteko prozedura bat abian jartzea.

- Prozedura hori ezin izan dugu abian jarri, administrazio elektronikoaren euskarria den arkitektura teknologikoa berraztertzen ari garelako.

11.1.4. Gobernu Kontseiluak administrazio elektronikoaren eragikera plana onartzea eta garatzea.

- 2014ko azaroaren 6an, UPV/EHUren egoitza elektronikoaren funtzionamendua eta edukia arautzen dituen araudia onartu zuen Gobernu Kontseiluak. Egoitza elektronikoa abian jarri ostean eta zenbait prozedura ezarri ostean, orain, e-administrazio batzordeak administrazio elektronikoaren eragikera plana berrikusteko dauka.

11.1.5. UPV/EHUren Dokumentu Kudeaketarako eta Artxiborako Politika garatzea.

- Ikasturte honetan, artxiboa kudeatzeko tresna berria kontratatzeke agiria prestatu dugu; sailkapen koadroa berritzen aritu gara, eta horrenbestez, baita dokumentu segidak ere.

11.1.6. Zerbitzuen kartak egiten eta hedatzen jarraitzea.

- Zerbitzuen Karten bigarren deialdiaren esparruan, sei administrazio unitatek dagoeneko jaso dute prestakuntza, eta dagoeneko definituta eta idatzita dituzte euren Kartak. Kalitate eta Ebaluazio Instituzionalerako Zerbitzuak bere kartaren urteko berrikustelana egin du. Q-epearen kanpo ebaluaziora aurkeztu (kudeaketan bikaintasunari begirako konpromisoa duten Euskal Herriko erakunde publikoen sarea), eta bere ereduaren arabera, 46 puntutik 44 lortu ditu, bai eta Zerbitzuen Kartaren 2015-17 Q-epea zigilua ere.

11.1.7. Faktura elektronikoa ezartzea.

- UPV/EHUren esparruan faktura elektronikoa ezartzeko prozesua aurreikusitako epeetan gauzatu dugu, FACE sistema baliatuta. Horretarako, hainbat koordinazio

bilera egin ditugu, eta horietatik, aplikazioak eta sistemak behar bezala ezartzeko egokitzapen zehatzak atera dira.

11.2. UNIBERTSITATE EGITURA GARATZEA

11.2.1. UPV/EHUko ikastegien egitura berrantolatzeko proposamena izapidetzea Gobernu Kontseiluan.

- Irailaren 9an egindako Gobernu Kontseiluaren bileran, UPV/EHUko ikastegiak berrantolatzeari buruzko erabakia izapidetzeko eta onartzeko prozedura onartu genuen. Gerora, 2014ko azaroaren 27an, Ikastegiak Berrantolatzeko proposamena onartu genuen, eta 2015eko otsailaren 5ean, Ikastegi berrien behin betiko izendapena erabaki genuen.

11.2.2. Ikastegien Oinarrizko Arautegi berri bat egitea, ikastegien egitura berria aintzat hartuta.

- 2015eko ekainaren 29an, egitura berriak eragindako ikastegiei Ikastegien Oinarrizko Arautegiaren proposamenaren zirriborroa aurkeztu genien, eta irailaren 21era arteko epea eman genien euren ekarpenak aurkezteko.

11.2.3. Estatutuen eta arautegien garapena amaitzea.

- Ikasturte honetan, ikastegi baten araudia aldatu dugu, 2 sailen araudiak onartu ditugu eta Master eta Doktorego Eskolen Oinarrizko Arautegia aldatu dugu. Era berean, UPV/EHUko ekitaldi ospetsuen, ohoreen eta protokoloen araudia onartu dugu, bai eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzako arretari buruzko aukera berdintasunerako araudia ere.

11.3. GARDENTASUNEZ JOKATZEA ETA KONTUAK EMATEA

11.3.1. Iragarki Taula Ofizial Elektronikoa martxan jartzea.

- Oraindik ezin izan dugu martxan jarri; izan ere, ezinbestekoa zen aldez aurretik webgune korporatiboa edukien kudeaketarako tresna berrira aldatzea. Iragarki taula hori 2015/2016 ikasturtean jarriko dugu martxan, gainerako iragarki taula elektronikoko guztiekin batera.

11.3.2. Gardentasuneko, Informazio Publikoa eskuratzeko eta Gobernu Oneko Legea ezartzea.

- UPV/EHUren gardentasun atarian lanean aritu gara, 2015eko abendurako prest egon dadin, legeak adierazi bezalaxe.

11.4. BARNE ETA KANPO KOMUNIKAZIOA

11.4.1. UPV/EHUren Komunikazio Plana (2012-2015) ebaluatzea.

- UPV/EHUren I. Komunikazio Plana (2012-2015) ebaluatu dugu. Horretarako, ikerketarako metodologia kualitatibo bat osatu dugu, zeinari esker aipatutako planaren ezagutzaren eta erabileraren berri jakin baitugu eta dituen ekintza guztien ezarpen maila finkatu ahal izan baitugu.

Plana ebaluatzeko, bi lantalde paralelo eratu ditugu: bata, komunikazio egituraren arduradunekin, eta bestea, Komunikazio Bulegoko teknikari guztiekin.

Era berean, hainbat kolektibok plan horri buruz duten ezagutza eta erabilera mailari buruzko testuinguru informazioa eta informazio espezifikoa bildu dugu. Zehazki, honela: ikastegietako 32 dekanok eta zuzendaririk elkarriketak egin dizkiegu, bai eta 9 errektoreorde eta zerbitzueta arduradun ere. UPV/EHU lan egiten duten 1.611 pertsonak (irakasleak eta ikertzaileak, AZPko langileak eta bestelako kolektibo batzuetakoak) erantzun diote unibertsitateko kideei bidalitako galdetegiari, eta euskal gizarteak 1.200 pertsonak parte hartu dute helbideratuta egindako galdetegian. Orotara, 2.924 pertsonaren laguntza jaso dugu.

11.4.2. II. Komunikazio Plana (2016-2019) egitea.

- I. Komunikazio Plana (2012-2015) ebaluatu ostean, II. Plana egiten ari gara. 2015. urte amaieran edo 2016. urte hasieran aurkeztuko diogu unibertsitateko Gobernu Kontseiluari.

11.5. GASTUAREN KONTROL ERAGINKORRA

11.5.1. UPV/EHUren Kontabilitate Analitikoko lehen datuak lortzea.

- Behin ereduaren aldagai guztiak aztertu ostean eta UPV/EHUren errealitatera egokitu ostean, pertsonalizazio prozesua amaitu dugu. Ondorenerako, aurreikusita dago datuak informatika sisteman kargatzea, emaitzak lortzeko.

11.5.2. Energia eraginkortasuna hobetzeko eta UPV/EHUko eraikinen hornidura eta funtzionamendu kostuak murrizteko hobekuntza plana.

- Hiru campusetako eraikinetan energia azterketak egiten amaitu dugu. Era berean, UPV/EHUko zenbait eraikinen energia ziurtagiria lortzeko lanak esleitu ditugu.
- Bestalde, aurreko urteetako lan ildoari jarraituz, eraikinetako argiak berritzen eta eragingarritasun handiagokoak jartzen ari gara, eta korridoreetako eta gune komunetako argiteria sektoreka antolatzen, egokitu beharreko guneen argiztapen maila aztertu ondoren. Era berean, Arabako Campuseko ikastegietako ikasgeletako eta laborategietako argiak aldatzen jarraitzen dugu, horien energia eraginkortasuna hobetzeko eta argiztapen mailak egokitzeko asmoz.
- Bizkaiko Campusean, Leioa-Erandio Guneak berokuntza sarean azterlan osotua egiteko aukera eskaini dugu, egungo egoera zein den eta egin litezkeen hobekuntzak zein diren jakiteko, eta era horretan, eraikinetako eskaerak modu iraunkorrean egokitzeko.

11.6. FINANTZAKETA IRAUNKORRAREN EREDUA

11.6.1. Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan jarraitzea, Unibertsitate Plan bat egiteko (2015-2018).

- 2014ko azken hiruhilekoan, hainbat bilera egin genituen Eusko Jaurlaritzarekin, Unibertsitate Plan berri bat osatzeko (2015-2018); azkenean, 2014ko abenduaren 30ean onartu zuen Eusko Jaurlaritzak.

12. PROGRAMA. CAMPUSETAKO BIZITZA

12.1. CAMPUS ANITZEKO EREDUA

12.1.1. UPV/EHUren campus anitzeko eredia garatzen jarraitzea.

- Gipuzkoako Campusean campus anitzeko ereduaren garapenean sakontzen jarraitu dugu, eta hori agerikoa izan da campuseko ikastegietan hautemandako arazo komunei heltzeko sortutako batzordeetan. Ildo horretan, Gradu Amaierako Lanen Batzordea, Curriculum Praktiken Batzordea eta Borondatezko Praktiken Batzordea sortu ditugu, bai eta irakats eskaintza eleanitzeko bi lantalde ere (arlotzientifiko-teknikoan bata, eta gizarte eta giza zientzien arloan bestea); horri esker, nazioarteko ikasleek eskaintza zabalagoa izan dute. Bestalde, Campuseko hainbat espazio alokatzeko araudia bateratu dugu, eta alokairuak izapidetzeko protokolo berri bat jarri dugu abian.

12.2. CAMPUSEN GARAPENA

12.2.1. Urte Anitzeko Inbertsio Plana (2011-2014) betearaztea.

- Arabako Campusa:
 - Micaela Portilla Gizarte eta Giza Zientzien Ikergunea. 2014an eraikuntza obrak amaitu ostean, lehenengoz okupatzeko lizentzia eta jarduera lizentzia eskuratu ditugu, eta bermealdiko jarraipenarekin eta eraikina hornitzearekin lotutako zereginak egin ditugu.
- Gipuzkoako Campusa:
 - 2015eko urtarrilean, Elbira Zipitria izenez bataiatutako Erabilera Anitzeko Zentroko obrak amaitu ditugu. Eraikin berri honetako espazioak, batik bat, irakaskuntzarako erabiliko dira. Hainbat tamainatako hogeita hamarren bat ikasgela diseinatu ditugu, Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskolako, Arkitektura Goi Eskola Teknikoko eta Gipuzkoako Campuseko Esperientzia Geletako (horiek Elbira Zipitria Ikastegian izango dute egoitza berria) premiei erantzuteko asmoz. Eraikin horretan dago, halaber, Gizarte Berrikuntzarako Zentroa. Eraikina dagoeneko hornituta dago, eta 2015/2016 ikasturtean irakaskuntza lana eskaintzen hasiko gara.

12.2.2. Urte Anitzeko Inbertsio Plana (2015-2018) egitea.

- 2014ko abenduaren 30eko saioan, Eusko Jaurlaritzak erabaki zuen 2015-2018 Unibertsitate Plana onartzea. Plan horretan, Urte Anitzeko Inbertsio Planari dagokionez, lehentasuntzat jotzen dira Medikuntza eta Odontologia Fakultateko eraikin berria eta Erizaintzako Unibertsitate Eskola.

12.2.3. Kanpo finantzaketako garapen planak betearaztea.

- Bizkaiko Campusa:
 - Animaliategia handitzea: 2014ko abenduaren 15ean hasi genuen obra, eta dagoeneko hasita dugu hornitzeko eta abian jartzeko fasea. Gainera, lehenengoz okupatzeko lizentzia eta jarduera lizentzia eskuratzeko prozesuan murgilduta gaude.

- Maria Goiri Animalia Bioteknologia Zentroa: 2014ko irailaren 22an hasi genituen obrak, eta 2014/15 ikasturtean zehar, eraikina hornitzeko fasea gauzatu dugu. Lehenengoz okupatzeko lizentzia eta jarduera lizentzia eskatzeko prozesuari heldu diogu orain.
- Martina Casiano Plataforma Zientifiko-Teknologikoa: 2014ko azaroaren 25ean hasi genituen obrak, eta 2014/15 ikasturtean zehar, eraikina hornitzeko fasea gauzatu dugu. Lehenengoz okupatzeko lizentzia eta jarduera lizentzia eskatzeko prozesuari heldu diogu orain.
- Biofisika Unitateko Institutu Mistoa (UPV/EHU - IZGK): Eraikin berriaren hornidura eta instalazio premiak definitu ditugu, 2015. urtea amaitu aurretik egin beharreko lekualdatzeak egiteko.
- Erreka Artifizialen laborategia izango den lokala egokitzeko proiektua egitea.

12.2.4. Enpresa mintegien funtzionamendua bultzatzea.

- Arabako Campusa:
 - Inizia enpresen mintegian, Lascaray Ikergunean berriki sortutakoan, oinarri teknologikoko enpresak sortzeko eta horiek martxan jartzeko laguntza eman dugu.
- Bizkaiko Campusa:
 - Azpiegituren atalean, ZITEK Leioako ekintzaileen ikasgela eraberritu dugu, eta taxutzeko moduko 4 modulu prestatu ditugu, mintegietara eraman aurretik ontze fasean dauden enpresa proiektuak hartzeko. Bestalde, merkatutik hurbileko proiektuak aurkeztu dituzten hainbat Junior Enpresa hartu ditugu. Junior Enpresa horietako bat eratuta dago dagoeneko, eta ZITEK Portugaleteko lokal batean dago kokatuta.
 - Prestik azokan, BIME Pro ekimenean eta Bilbao Bizkaia Entrepreneur Meetup-en parte hartu dugu. Kultura ekintzailea sustatzeko jarduera bat ere egin genuen, Ekintzuz izenekoa, galdera/erantzun jolas batean oinarritutakoa. Enpresekiko topaketak antolatzen jarraitu dugu, eta horiek baliagarriak dira mintegietako enpresen arteko topaguneak egin, eta proposamenak trukatu eta enpresa aliantzak egiteko. Ikasturte honetan 3 topaketa egin ditugu, ekintzailetzarako laguntzak emateko eta jabetza intelektualeko eta industrialeko eskubideak bermatzeko.
 - Azkenik, enpresak sortzeko jarduerari dagokienez, 7 enpresa berri sortu ditugu, eta dagoeneko ZITEKen inkubagailuetan daude. Atal honetan, hasierako eskemarekin jarraitzen dugu: Zitek Portugaleteren ardurak dira campusean kultura ekintzailea sustatzea eta intentsitate teknologiko txikiagoko proiektu berritzaileak bultzatzea. Gainera, merkatura irteteko lehen fasean dauden oinarri teknologikoko enpresak hartzeko politika betetzen du.
- Gipuzkoako Campusa: Entreprenari Programak jarduerak lantzen jarraitu du, hiru jarduera ildo estrategikoetan:
 - Kultura Ekintzailea: foroak, tailerrak eta mintegiak eginda, lankidetzak eskainita masterretan eta sarietan (Laborde eta Think Big) 320tik gora pertsonak parte hartu dute, bai eta enpresa berritzaileak sortu eta kudeatu nahi dituzten ekintzaileentzako prestakuntza espezifikoa emanda ere.
 - Enpresa proiektuak hautematea eta balioestea, enpresetara ikustaldi pertsonalizatuak eginda eta enpresekiko lankidetzak sustatuta. Bic Berrilaneekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera, diagnostiko teknologikoak martxan jartzeko proposamen bat diseinatu dugu. Litekeeneko 38 negozio ideia hauteman ditugu, eta horietatik 15 proiektu berri aukeratu ditugu.

- Enpresa proiektuak kudeatzea eta garatzea. Entreprenari Gunean, 8 proiektu zientifiko-teknologiko gauzatzeko aholkularitza ematen gari gara, eta dagoeneko 8 enpresa berri sortu dira.

12.2.5. Eraikinak indarrean dagoen araudira egokitzea (prebentzioa, irisgarritasuna eta jarduera lizentziak).

- Arabako Campusa: Campuseko Irisgarritasun Planaren bidez, ikastegien sarbide nagusiak hobetzen jarraitu dugu (eskudelak ipintzea, ate automatikoak...). Bestalde, Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskolaren, Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolaren eta Medikuntza eta Odontologia Fakultateko Irakasgunearen jardura lizentziak lortzeko memoriak aurkeztu ditugu Gasteizko Udalean. Era berean, Micaela Portilla Zentroaren autobabeserako plan berria idatzi dugu, eta eguneratu egin ditugu, besteak beste, Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolako, Letren Fakultateko eta Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolako planak. Hobekuntzak egin ditugu hainbat instalaziotan, ATEX araudira egokitu daitezen; baita suteak hautemateko sistemetan eta suteen alarma sistemetan ere. Bide beretik, campuseko ikastegietako zabaltzen, teilatuen eta estalkien inbentarioa, analisi-ebaluazioa eta ikuskaritza lana egin dugu, bai eta horietan egin beharreko hobekuntza jardunak definitu ere. Azkenik, hobekuntza horiek egiteko lanak gauzatu ditugu.
- Bizkaiko Campusa: Miguel Unamuno Ikastetxe Nagusian hainbat lan egin ditugu instalazioak suteen aurkako araudira egokitzeko, irisgarritasuna hobetzeko eta energia kontsumoa murrizteko. Zehazki, irisgarritasunari dagokionez, eraikinera sartzeko ateak aldatu ditugu, egokitzapenak egin ditugu jangelan eta liburutegian, ezgaitasunak dituzten pertsonen erabilera errazteko. Iraunkortasunari dagokionez, kontsumoa murrizteko asmoz, eraikinaren zati batean argiztapen mota aldatu dugu.

Leioa-Erandio Gunean, eskudelak jarri ditugu, segurtasuna bermatzearren. REBT Behe Tentsioari buruzko Araudi Elektroteknikoa betez, 4. transformazio zentroa aldatu dugu, eta 5.a aldatu beharra mahai gaineratu dugu. Era berean, parke zientifikoaren eremua urbanizatzeko lanak egin ditugu.

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean, larrialdietarako bigarren irteera bat ireki dugu. Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolan, galدارak eta tximinia aldatu ditugu.

Liburutegi Nagusian eta Ingeniaritzako Goi Eskola Teknikoan, fatxadak berritzeko lanak egin ditugu.

- Gipuzkoako Campusa: Hobekuntzak egin ditugu campuseko hainbat eraikinetan. Zuzenbide Fakultatean, igogailu bat jarri dugu fatxadan. Irakasleen Unibertsitate Eskolako, Arkitektura Goi Eskola Teknikoko, Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolako eta Informatika Fakultateko eraikinetan lanak egin ditugu sarrera nagusietan, hainbat terrazatarako eta aisiarako eremuetarako sarbideetan eta estalkietan. Azken horietan, hain justu, instalazio fotovoltaiakoen mantentze eta prestaketa lanetarako.

Campuseko urbanizatzeko lan orokorrari dagokionez, Kimika Fakultate inguruko eta Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolaren inguruko zoladura berritu dugu, ikastegien kokaguneari buruzko bide seinaleak eta informazioa hobetu dugu eta eskudelak jarri ditugu erorketa arriskuak saihesteko.

Eraikinak eta horietako instalazioak hainbat arauditara egokitzeari dagokionez, hainbat jardun egin ditugu bereziki honako hauek betetzeko asmoz: Suteen aurkako Segurtasunari buruzko Oinarrizko Dokumentuaren Eraikuntzarako Kode Teknikoa, Sutea izanez gero beharrezkoa den Segurtasuna, Erabilera Segurtasuna eta Behe Tentsioari buruzko Araudi Elektroteknikoa (REBT).

Irakasleen Unibertsitate Eskolan, Kimika Fakultatean eta Enpresa Ikasketen Fakultatean, larrialdietarako argiak berritu ditugu. Suteen aurkako zentrala berritu/handitu dugu, bai eta alarma instalazioa ere Unibertsitate Eskola Politeknikoan eta Korta Zentroan.

REBT araudiari dagokionez, Kimika Fakultateko eta Unibertsitate Eskola Politeknikoko argiztapen lineak eta zirkuitu elektrikoak bereizi ditugu eta etengailu diferentzialak aldatu ditugu; Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean eta Psikologia Fakultatean, berriz, koadro elektrikoak ugaltu ditugu.

- Erabilera segurtasunari dagokionez, segurtasun sokak ezarri ditugu Erizaintzako Unibertsitate Eskolan eta Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Estalkira iristeko eskailera berriak ere jarri ditugu, instalazioen mantentze lana hobeto egin ahal izateko.

12.2.6. Campusetako irakaskuntza, ikerketa eta kudeaketa Europako Unibertsitate Eremura (EUE) egokitzen laguntzea.

- Hiru campusetan (Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia), ikastegiei zuzendutako deialdien bitartez, ekipamendu informatikoa hobetzeari ekin diogu (softwarea eta hardwarea), baita campusetako ikastegietako ikasgeletako, mintegietako eta laborategietako ikus-entzunezko sistema egokitzeari ere. Laborategiko irakaskuntza ekipamendua erosi dugu hainbat ikastegitarako, irakaskuntza praktikoa eta eraginkorra bermatzeko, titulu berrien beharren arabera.
- Arabako Campusean, 2012-14 eta 2013-15 epeetan lurralde horretan garatu beharreko 8 Hezkuntza Berrikuntzarako Proiekturen jarraipena egin dugu, eta horiei babesa eman diegu; gainera, 2014-16 biurtekorako 4 proiektu berri jarri ditugu martxan. Unibertsitate Irakasleentzako Prestakuntza Programako ikastaroen bi deialdi egin ditugu: 14 ikastaro eskaini ditugu, aurrez aurrekoak nahiz birtualak, Arabako Campuseko irakasle eta ikertzaileen gaitasunak eta kualifikazioa hobetzeko. Irakasleak ERAGIN irakaskuntza metodologia aktiboetan trebatzeko programaren 5. edizioan egindako diseinuak ezarri ditugu. Horietan, hain zuzen, Arabako Campuseko irakasleek parte hartu dute. Era berean, 13 irakasleek parte hartu duten 6. edizioan, proiektu berriak diseinatu dira, eta horiek 2015-2016 ikasturtean ezarriko dira.
- Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzak diruz lagundu ditu ikasleek egiteko hainbat ikastaro eta jardunaldi, ikasleen prestakuntza osagarri gisa.

12.2.7. Harremanetan jartzea tokiko eta lurraldeko erakundeekin lankidetzak proiektuak sortzeko.

- Arabako Campusean, Arabako Foru Aldundiarekin dugun lankidetzari esker, harekin sinatutako hitzarmena berritu dugu, Giza Zientziak titulua emateko (Vital Fundazioarekin eginiko hitzarmen baten bidez ere finantzatua); bai eta akordio bat ere, campuseko Gazte Informaziorako Gunea sendotzeko. Gasteizko Udalak, bestalde, unibertsitateko kideen artean ariketa fisikoa bultzatzeko ekimenean parte hartu du, haien eskura jarri hainbat kirol gune eta instalazio. Guk, era berean, Cortada Film Laburren Jaialdia finantzatzen lagundu dugu, eta ekintzailatza bultzatzeko lankidetzak hitzarmena berritu dugu. Kirol alorrean, lankidetzak hitzarmenak egin ditugu hiriko hogeit bat gimnasiorekin, unibertsitateko kideentzat abantailak lortzeko.
- Bizkaiko Campusean, Campuseko Batzarraren Batzorde Iraunkorraren bitartez, hainbat eratako erakundeekin 41 hitzarmen sinatu ditugu, zenbait proiektutan lankidetzan jarduteko. Hitzarmenak egin ditugu Bilboko, Leioako, Sestaoko (Sestao Berri) eta Laudioko udalekin, hainbat arlori buruzkoak: arte eta kultura jarduerak, ostalua, iraunkortasuna eta energia eraginkortasuna, besteak

beste. Hainbat lankidetzak gai ditugu Bizkaiko Foru Aldundiarekin. Horregatik, ikasturte honetan, bi hitzarmen sinatu ditugu: bata, ETEak nazioartekotzeko laguntza programen eraginkortasunen adierazleak hautemateko azterketa bat egiteko; eta, bestea, Familia Enpresa Katedra garatu eta sendotzeko. Era berean, lankidetzak hitzarmen bat sinatu dugu Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berrikuntza, Landa Garapen eta Turismo Sailarekin. Gainera, lankidetzak hitzarmenak sinatu ditugu hainbat fundazioarekin: Iberdrola, Caja Vital Kutxa, Ipar Hegoa, Lagun Aro, Ikerbasque, Renovatio, Arantzazu Gaur Fundazioa, BBKren Gizarte Ekintza... horiek guztiak, ikerketaren arloan laguntzeko eta hainbat jarduerara bultzatzeko.

Beste hainbat hitzarmen ere sinatu ditugu, UPV/EHUko ikasleen prestakuntza zuzenean indartzeko, praktikak eginda, master amaierako lanak eginda edo ikerketa lanak eginda. Besteak beste, honako hauekin: Espainiako Itsasketa Elkartea (ANAVE), Innovalia Elkartea, Vigoko Unibertsitatea eta Cintranaval-Defcar.

Eta titulu bikoitzeko hitzarmenak sinatu ditugu Jean Moulin Lyon 3 Unibertsitatearekin, Merkataritzako La Rochelle Goi Eskolarekin (École Supérieure de Commerce de La Rochelle) eta Newcastleko Northumbria Unibertsitatearen (Northumbria University), besteak beste.

- Gipuzkoako Campusean, 21 hitzarmen sinatu ditugu Campuseko Batzarraren bitartez. Besteak beste, honako erakunde hauekin: Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Donostiako Udalarekin, Portugaleteko eta Donostiako udalekin, Emaus Fundazioarekin, Txileko Talca Unibertsitatearekin, Donostia 2016 Fundazioarekin, Ekonomisten Euskal Elkargoarekin, Energia Kudeatzaileen Euskal Elkarte Profesionalarekin, Paueko Unibertsitatearekin, Ostbayerische Technische Hochschule Regensburg-ekin (OTH Regensburg), eta, azkenik, Bordeleko Arkitektura Goi Eskola Teknikoarekin (l'Ecole nationale supérieure d'architecture et de paysage de Bordeaux).

Horrez gainera, bilerak egin ditugu Donostiako Udaleko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko agintariekin, gai jakin batzuetan elkarlanean aritzeko (mugikortasunean, adibidez).

12.3. UNIBERTSITATE OSTATUA

12.3.1. Unibertsitate egoitzetako plaza kopurua handitzea.

- Arabako Campusean, jarraipena emandiogua Santa Maria Katedrala Fundazioarekin dugun lankidetzari, haren gazte eta erromesen aterpeak unibertsitateko kideei eskaintzen dien ostatu eskaintza kuantitatiboki zein kualitatiboki handitzeko.
- Bizkaiko Campusean, harremanak izan ditugu ikastegietatik hurbil dauden egoitzekin, haien eskaintza hurbiletik ezagutu eta harreman estuagoak ezartzen ahalegintzeko.
- Gipuzkoako Campusean, campuseko Agud Querol unibertsitate egoitzak ematen duten ostatu zerbitzuari jarraipena egin diogu.

12.3.2. Alokairu bidezko unibertsitate ostatuari dagokion eskaintza handitzea.

- UPV/EHUk alokairuko ostatu eskaintzaren datu-base bat sortu du, eta hiru campusetako ikasleek OSTATU zerbitzuaren bidez eskura dezakete.

12.3.3. Etxebizitza solidarioen eskaintza handitzea.

- Arabako Campusean, hainbat ekintza jarri ditugu martxan, ikasleek pertsona adindunen etxeetan ostatu hartzeko programa bultzatzeko.
- Bizkaiko Campusean, 45 plazari eutsi diegu Gazte Solidarioak programan; hots, Bilboko Udal Etxebizitzekin lankidetzan egindako programan.

12.4. IRAUNKORTASUNA ETA INGURUMENA

12.4.1. Garraio iraunkorra bultzatzea.

- "Ibilgailua partekatu" programaren jarraipena.
- Gasteizko autobus geltoki berria ireki zenez gero, lankidetzan hertsia izan dugu Gasteizko Udalarekin eta gai horretan eskumena duten Foru Aldundiekin, ez ditzaten kendu campusetako autobus geraldak.
- Bizkaiko Campusean, harremanak izan ditugu garraio iraunkorreko enprekin, aktiboki parte hartu dugu Europako Mugikortasun Astea, eta erabiltzaile askoko ibilgailuen aparkamendu programa espezifikoari eutsi diegu. Gainera, Aparka proiektuarekin jarraitu dugu, bizikletentzako aparkaleku seguru eta konektatua ezartzeko. Eta Bilboko hainbat ikastegitan bizikleta erabiltzea sustatzeko kanpaina berezi bat egin dugu.

Bestalde, Bizkaiko Campusean, Bide Segurtasunarekin lotutako kontzientziazio astea egin genuen, Michelin enpresarekin. Hainbat jolasen bidez, gidatzeko modu seguru, eraginkor eta ingurumenarekiko errespetuzkoaz kontzientzia harrarazten saiatu ginen.

- Gipuzkoako Campusean, oinarritzko hitzarmena sinatu dugu Kalapie Hiriko Txirrindularien Elkartarekin, bizikletaren erabilerarekin lotutako jarduerak egiteko. Gainera, IKDrekin programa bat landu dugu, Kalapie Elkartek proposatutako erronkari erantzuteko: "Gazteen artean bizikletaren erabilera sustatzea, eta ez motorrarena". Bestalde, Donostiako Udalarekin lankidetzan jardun dugu Mugikortasun Astea 2014 ekimenean antolatutako jarduerak zabaltzeko, eta hainbat garraio bideren arteko alderaketa proba egiten lagundu dugu. Era berean, udal horrekin lankidetzan dihardugu, Switch programa bultzatzeko. Proiektu horrek mugitzeko ohitura osasungarriagoak bultzatzen ditu.

12.4.2. Aurrerapausoak ematea energia aurrezpenean (eko-kudeaketa eta ingurumen kudeaketa proiektuak).

- Arabako Campusa: UPV/EHUko Arabako Campuseko eraikin guztietan egin beharreko energia azterketak amaitu ditugu. Micaela Portilla Zentroan instalazio fotovoltaiko bat jarri dugu martxan. Argi zaharrak kendu eta eraginkortasun handiagokoak jarri ditugu hainbat ikastegitako ikasgela eta laborategietan. Era berean, Arabako Campuseko Errektoreordetzaren eraikinak bere EKOSCAN ziurtagiria berritu du. Bestalde, unibertsitate zerbitzurako egokia ez den material informatikoa dohainik besterentzeko beharrezkoak diren dokumentazioak eta txostenak egin ditugu, 2015-2016 ikasturtean dagokion deialdia argitaratu ahal izateko.
- Bizkaiko Campusa: Ekoskan ziurtagiriari eta kontsumoa optimizatzeko helburuei esker, iraunkortasunarekiko konpromisoa eutsi diegu. Gainera, laguntza ekonomikoak eman dizkiegu hala eskatu duten ikastegiei, ingurumena hobetzeko edo egiaztapen azterketa egiteko kudeaketa sistemari eusteko.

Affordable and Adaptable Buildings through Energy Efficient Retrofitting Europako Proiektuan parte hartzen jarraitzen dugu. Hala, Errektoreordetzaren eraikinean sentsorizazio sistema bat instalatu dugu eta intereseko ingurumen parametroak monitorizatu ditugu, eraikinaren energia eraginkortasuna hobetzeko neurri zehatzak hartzeko.

- Gipuzkoako Campusa: Campuseko ikastegietan Ekoskan araua egiaztatzeko prozesuarekin jarraitu dugu. Lehendik ere plus batekin egiaztatuta zeudenez gainera, 2014-2015 ikasturtean honako hauek lortu dute egiaztapena: Joxe Mari Korta Zentroak eta Carlos Santamaria Zentroak. Eta egiaztapena lortzeko lanean ari dira Kimika Fakultatea eta Informatika Fakultatea.

Bestalde, energia azterketak egin ditugu horrelakoak egiteke zituzten fakultate eta eskoletan: Arkitektura Goi Eskola Teknikoa, Informatika Fakultatea, Psikologia Fakultatea, Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea, Erizaintzako Unibertsitate Eskola eta Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola.

Azkenik, lan bat egin dugu Arkitektura Goi Eskola Teknikoan, batez ere 1. mailako ikasleekin, saltzeko makinetan plastikozko edalontzien erabilera murrizteko.

12.5. IKASLEENTZAKO TOPAGUNEAK

12.5.1. Ikasletxeak proiektuaren garapena babestea.

- Arabako Campusean, bertan ikasle elkarteen presentzia indartzeko ekimenak bultzatu ditugu.
- Bizkaiko Campusean, Ikasletxea proiektuari babesa ematen jarraitu dugu, haren irismena handitzeko helburuarekin. Gainera, ikasle elkarte berrien jarduerak garatzea bultzatu dugu, beharrezkoa izanez gero, espazioak eta altzariak utzita.
- Gipuzkoako Campusean, kokaleku berri bat bilatu dugu Ikasletxearentzat; hain justu, Zuzenbide Fakultatearen alboko pabiloietako lokaletako batean. Eta, hain zuzen, libre geratuko da orain bertan daudenak Elbira Zipitria eraikin berrira lekualdatzen direnean.

12.5.2. Campusetako azpiegiturak hobetzea.

- Arabako Campusean, besteak beste, zoladura higienikoa jarri dugu, Farmazia Fakultateko Elikagaien Plantan elikagaiekin erabiltzeko modukoa. Era berean, hobekuntzak egin ditugu Letren Fakultateko Areto Nagusiko klimatizagailuan, ikasgeletako sabaietan eta ikastegi batzuetako laborategietan, euren egokitze akustikoa bermatzeko; bai eta Farmazia Fakultateko laborategi batzuetako klimatizazio instalazioetan ere, erosotasun termikoa hobetzeko. Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolan eta Medikuntzako Irakaskuntza Unitatean IKD eremu berri bat amaitu eta ireki dugu jendearentzat.
- Bizkaiko Campusean, Arte Ederren Fakultateko liburutegia handitu eta egokitu dugu, ikasleek gaur egun egin behar izaten dituzten lankidetzan lanen premiak asetzeko.

Liburutegi Nagusiko eraikinean, Nazioarteko Harremanetarako Bulego berria atondu dugu. 2015eko apirilaren 14an egin genuen inaugurazioa. Era horretan, hobetu egin ditugu bertako instalazioak eta erabiltzaileek zerbitzurako duten sarbidea.

Liburutegiko eraikinaren seigarren solairuan, prestakuntzarako ikasgela bat egokitu dugu; eta, besteak beste, bideokonferentziak egiteko ekipamendua dauka.

- Gipuzkoako Campusean, Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko langileen topaketarako espazioak prestatu ditugu. Gainera, ikasleen topaketarako beste espazio bat diseinatu dugu, Campuseko pabiloietan kokatutakoa.

